

2009ko urtarrilaren 1a • XXIX. urtea
www.ttipi.net



**Euskarazko hedabideak
baliabiderik gabe**

04

Nafarroako hedabideetan euskararen erabilera indartzeko Nafarroako Gobernua 2009an iragarri duen diru-poltsa ttititzeak kolokan utzi ditu medio aunitz, Ttipi-Ttapa barne.



**2008. urteko kirolari
aipagarrienen zerrenda**

28

Gure inguruan 2008ak eman dituen kirolari nabarmenekin izendegia osatu du Ttipi-Ttapak. Pilotariak, judokak, futbolariak, aizkolariak, txirrindulariak... Denetarik ageri da.

ARKAITZ VICENTE SUNBILDARRA

03 Artzaintzatik bizi nahi eta Artzain Eskolan ikasten



Itxi	* F1
Gorde	* F2
Gorde dena	* G
Ezabatu	* E
Berregin	

Bidali lotura postaz

Kopiatu

Itsatsi ▶

Ebaki

Inprimatu

F6

Atsegin dugu jakitea etorkizuna esku onetan dagoela

Atsegin dugu gure planeta hobetzeko lan egitea. Atsegin dugu ikertzea. Atsegin dugu jakitea etorkizuna aldatzen ahal dela. Eta atsegin dugu jakitea aunitz garela amets hau berbera konpartitzen dugunak. Ilusio honek egunetik egunera hobetzen laguntzen digu, ingurumenarekin arduratsuak diren portaerak geure gain hartzeko dugun konpromiso enpresarialarekin leial izateko eta eraginkortasunez jarduteko geure baliabideak optimizatzeke orduan.


gasNatural
Navarra

www.gasnatural.com

DATUAK...

- Arantzazuko Artzain Eskolan dabil Arkaitz Vicente sunbilda-rra. Artzaintzatik bizitzea gustatuko litzaioke eta hain erraza ez izan arren, posible dela ikusten ari da eskolan.
- Urrian hasi zuen ikastaroa eta apiril akaberan akituko du. 900 orduko iraupena du eta klase praktiko zein teorikoak egiten dituzte. Azaldu digunez, puntako instalazioak daude eskolan.
- Artzaintzarekin segitzea erabakiz gero, baserriko artaldeak haunditzea gustatuko litzaioke.



Arkaitz VICENTE Sunbillako gaztea

ARGAZKIA: USOA VICENTE

«Artzaintza tradizionala eta modernoa nahasiz hortik bizi daitekeela ikusi dut»

Gurutze PIKABEA

Nolatan erabaki zenuen Artzain Eskolan hastea?

Betidanik izan dut Artzain Eskolan sartzeko gogoa, artzaintza gustatzen zaidalako. Duela 10 urte hasi ziren ikastaroen eta geroztik txirrinta izan dut. Aldi honetan aukera izan eta hementxe nago.

Zer egiten duzue ikastaroan?

Klase teorikoak eta praktikoak izaten ditugu. Bi astetan Artzain Eskolan egoten gara teoria ikasteko eta bertze bi astetan klase praktikoak hartzen ditugu baserri batean. Han egoten gara 24 orduz.

Nolakoa da teoria egun bat?

7:30-8:00etan ematu eta gosaldutik egiten dugu. Normalean, 10:00etarako klasean sartzen gara. Ekain Murua eta Batis Otaegi hemengo irakasleek gain, Iparraldeko Artzain Eskolatik ere jendea etortzen da erakustera. Klaseak akituta bazkaltzera joaten gara eta gero berriaz bueltatu. Arratsaldeko azken orduan artaldearengana joaten gara, klasean emandakoa praktikan jartzeko.

Eta klase praktikoetan zer egiten da?

Baserriko martxara egokitzen gara. Baserriarekin jeikitzen gara, arditegira joan, ardiaren lanak egin, jetzi, gaztak egin...

«Tresneria berrieekin denbora optimizatzen saiatzen dira, ahalik eta denbora guttienean ardiei jatera eman edo jezten. Bizi kalitate hobea izateko aukera ematen du horrek»

Bazkaldutik, siesta egin eta arratsaldean berri ardiaren lanak egiten ditugu.

Zer moduzkoa da eskola?

Eskola berria da. Orain gutti arte, ardiak baserriko sotoetan egoten ziren eta klaseak aparte zeuden. Baina berriki obra haundiak egin dituzte makineria eta materialik berriekin. Eskola arrunt zentratua eta espezifikoa da, eta sei hilabete denbora aunitz ez bada ere, aunitz ikasteko aukera ematen du. Irakasleak ere prestatuak eta esperientziadunak dira.

Zertarako balio izaten ahal dizu ikastaroak?

Alde batetik, ikasi eta prestakuntza hartzen ari naiz. Bertetik, diploma ere ematen digute eta horrek hainbertze orduz prestakuntza jaso izana erakutsiko du. Dirulaguntzak kobratzerakoan, adibi-

dez, laguntzen du.

Tresneria berrieekin lanak aunitz murriztuko dira...

Denbora optimizatzen saiatzen dira, ahalik eta denbora guttienean ardiei jatera eman edo jezten. Bizi kalitate hobea izateko aukera ematen du horrek. Ardiari jatera emateko zinta-garraiatailea dute; jezteko makina mekanikoa; ardiak parrila baten gainean daude arrobarekin eta ez dira azpiak atera behar...

Baserrian aldaketarik egiteko asmorik baduzu?

Hau akitzean ikusiko dugu, honetatik bizitzea erabakitzen dudana ala ez. Bueran proiektu aunitz ditut baina ongi pentsatu beharrekoak.

Artzaintzaren munduak ba ote du segidarik?

Orain arte gauza zegoen bezala, ez dirudi luzerako izanen denik. Artzainen adinaren batezbertzekoa altua da eta gazte gutti sartzen da mundu honetan. Hagitz lan lotua izan da, aunitzik ematen ez duena. Baina Artzain Eskolan, denbora libre gehiagorako aukera eman dezakeela ikusten ari naiz, eta artzaintza tradizionala eta modernoa konbinatuz, hortik bizitzea posible dela.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

2008ko
datu orokorrak

KOMUNIKABIDEAK




- Ttipi-Ttapa aldizkaria
- Ttipi-Ttapa telebista
- TTIPI.NET

AURREKONTUA / LANGILEGOA

- Guztien artean 510.000€ko aurrekontua
- 8 langile, lanaldi osoan
- 20 kolaboratzaile

FINANTZIAZIOA

BANAKATZE OROKORRA

⁽¹⁾ BALIABIDE PROPIOAK %59,26⁽²⁾ DIRULAGUNTZAK %40,74

AUDIENTZIA

ALDIZKARIA

Datu iturria: **CIES 2008**
Konparazioa: Nafarroa mendialdea
111 udalerri

Ttipi-Ttapa
aldizkaria
%40,63



26.000 irakurle
Mendialdeko populazioa: 64.000

TELEBISTA

Datu iturria: **CIES 2008**
Konparazioa: Nafarroa osoko telebistak

Ttipi-Ttapa TB
%3,5



18.000 ikusle
Nafarroako ikusle guztiak: 476.000

INTERNET

Datu iturria: **Google analytics**
Konparazioa: Neurritz antzekoak diren webguneak



5.002 bisita azaroak 17 --> abenduak 17
Konparatutakoak: 4.224 (+%18,42)

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza kenduta, 2 lanpostu galduko dira Ttipi-Ttapa Telebistan

Nafarroako Gobernua urtetik urtera murrizten joan da euskarazko komunikabideak laguntzeko duen diru-poltsa. Atera kontuak, 1999an 211.718,49 euro ziren tokian, hamar urte geroago, 2009an, ez da 9.000 eurotara ailegatuko euskarazko 31 komunikabideen artean banatzeko aurreikusitua. Inork gutxik pentsatuko zuen 1986an Euskararen Legea indarrean sartu zenean, 22 urte beranduago, Gobernuak manera honetan bizkarra emanen zionik komunikabideetan euskararen erabilera «diruz eta materialez laguntzeko» duen betebeharr legalari (Eusk. Legea, 27. art.)

AURTEN 9.567 EURO BAKARRIK AURREIKUSI DITU NAFARROAKO KOMUNIKABIDEETAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO

ttipi-ttapa

Duela 9 urte Ttipi-Ttapa Fundazioak 54.224,55 euro hartu zituen Nafarroako Gobernutik aldizkaria eta telebista finantziatzeko. Hamar urte geroago, 2009an, foru administrazioetik nekez etorriko dira mila euro Fundazioak gaur egun kudeatzen dituen telebista, aldizkaria eta egunkari digitala finantziatzeko. Hamar urteko tarte honetan murrizketa etengabekoa izan da baina, orain dela urte bat, inork ez duen pentsatuko, justuki Nafarroako Gobernuak Euskarabidea –Euskararen Nafar Institutua– handikiro sortu eta urte batera, hain zuzen, laguntzak kasik osotara desagertzeraino murriztuko zituenik.

Kolpe latza urte batetik bertera eman duena. Foru administrazioaren bertze ataletan egin denarekin konparatuz, dirulaguntza hauek %97 murriztea ez da justifikatzen ahal krisi ekonomikoa aitzakia hartuta. Gauza bera salatu dute Topagunea elkartearen inguruan bildutako gainerako komunikabideen ordezkariak ere: «Nafarroako Gobernuak hartu duen neurri hori ez da konponbide tekniko bat, erabaki politikoa baizik, eta agerian uzten du Gobernuaren mespretxua eta errespetu eza Nafarroako euskal hizkuntza komunitatearekiko». Baina afera ez da horretan gelditzen. Krisiaz hitz egiten zaigun garai honetan, ekonomia mimitu beharraz eta lanpostuak zain-

LAGUNTZAK ETA... LAGUNTZAK

2007ko dirulaguntzak ikusentzuzeko produkzioari

Canal 4 Navarra 1.009.678,40 €

Canal 6 Navarra 1.004.166,10 €

TV Popular Navarra 982.212,73 €

tzaz etengabe entzuten ari garen sa-soi honetan, euskarazko hedabideetan ari diren langileen lanpostuak kokolan jarri ditu Gobernuak. Krisia ekidin beharrean, kasu honetan administrazioa bera da krisia eragiten duena.

HEDABIDE BAKOITZAK BADU BERE BEREZITASUNA

Gaur egun Ttipi-Ttapa Fundazioaren inguruan zortzi langile enplegatzen dira eta 510.000 euro inguruko aurrekontua dago aldizkaria, telebista eta egunkari digitala aitzinera ateratzeko. Hiruen artean aldizkaria da sendoen dabilena, eta hori horrela da, neurri handi batean, autofinantzaketa mailarik altuena ere berak duelako. Ahulen dabilena, aldiz, telebista da zalantzarik gabeko. Bera da aitzinera ateratzeko bitartekorik gehien behar dituen, telebistako tresneria garestiagoa delako eta lan-orduen produktibitatea baxuagoa aldizkari eta irratiekin konparatuz. Eta epe laburrera begira, ezin ahantzi LTD-aren atarian (Lurreko Telebista Digitala), Foru Administrazioak eta Espainiako Gobernuak ez diotela aukerarik eman bere egoera legezatu eta emisio-lizentzia eskuratzeko. Egoera honek guztiak aurrera begira jartzen digun panorama ez da batere baikorra eta itxaropentsua.

LARRIALDIKO ERABAKIA

Gauzak horrela, larrialdiko erabakia hartu beharrean suertatu da Fundazioaren patronatua, eta «aitzinera begira defizita handitzen utzi eta telebistaren iraupena erabat ezinezkoa bihurtu baino lehen», gaur egun dauden baliabide ekonomikoaren neurriko telebista birformulatzea hobetsi du. «Diru-sarrerak tikiagoak izanen direnez, nahitaez, gastuek ere tikiagoak izan beharko dute». Pentsatzekoa den bezala, honek guztiak berekin ekarriko du telebistako programazioaren aldaketa, beti ere, lan guztiak aitzinera ateratzeko giza-baliabide gutxiago izanen direla kontuan hartuz.

Programazio berriaren nondik-norakoak prestatzen ari dira egun hauetan lan-taldeko arduradunak, eta aldizkari honen hurrengo zenbakian ematen da horren berri.

NAFARROAKO EUSKARAZKO HEDABIDEAK

TOPAGUNEA

Hainbat komunikabidetako ordezkariak prentsa agerraldi batean Iruñean

2008ko DATUAK

Eskaerak eta eskaintzak Nafarroako Parlamentuan

Topagunearen inguruan koordinatuta, aha-lerin ugari egin dira azken hilabeteotan egoera berbideratzeko. Azkenekoa, abenduaren 18an, Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aurrean egindako eskaerak eta eskaintzak. Hona hemen laburturik:

ESKAERAK:

- 2009ko aurrekontuetan euskarazko hedabide guztientzako (egoera alegalean daudenentzako ere) dirulaguntza duina egotea.
- Hori teknikoki posible ez balitz, dirulaguntza duina jasotzeko bideak irekitzea.
- Publizitate instituzionala euskarazko hedabideetan ere argitaratzea.
- Euskarabidea –Euskararen Nafar Institutua– itxurakerietarako erabili beharrean, diruz eta edukiz hornitzea.
- Euskarazko hedabideak egonkortze aldera, Gobernu eta hedabideen arteko hitzarmena egitea.

ESKAITZA:

Euskararen sustapenean euskarazko hedabide eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren sustatzea. Izan ere, hedabideen egoera egonkortzea guztiz premiazkoa da. Legeak Gobernu horretara behartzen du, eta hedabideok bide horretan lan egin nahi dugu.

KOMUNIKABIDEAK:


- 11 aldizkari
- 6 irradi
- 2 telebista
- 12 agerkari digital

EKONOMIA / LANGILEGOA

- Guztien artean 2.061.320 euroko aurrekontua
- 56 langile
- 366 kolaboratzaile

AUDIENTZIA

- Aldizkariak 21.450 etxetara ailegatzen dira
- Irrati-telebisten ikusentzulego potentziala 125.000 pertsonetara da

DIRULAGUNTZEN EBOLUZIOA GOBERNUKO AURREKONTUEKIN KONPARATUZ**■ Hedabideentzako laguntzen eboluzioa****■ Gobernuko aurrekontu osoarekiko dirulaguntzek duten portzentajea**

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Irtaxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugaramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Sara (La Poste)	54 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Euskarazko hedabideen adierazpena, dirulaguntzen desblokeoaren aurrean

Nafarroako Gobernuak partzialki desblokeatu berri du ekainaz geroztik blokeatua zuten euskara hedabideetan sustatzeko diru-poltsa. Xede horretarako gordeta zituen 310.000 euroatik, 240.000 banatuko ditu zehazki.

Nafarroan euskaraz dihardugun hedabideok, neurriak zuzenean eragiten digun heinean, ondoko hau adierazi nahi diogu Nafarroako Gobernuari eta gizarteari, oro har:

- Lehenengo eta behin, aitortu eta eskertu nahi dugu Hezkuntza Sailak eta Euskarabideakegin duten ahalegina, partzialki bada ere, poltsa desblokeatzea ekarri duena, eta Xabier Azanzak zein Hezkuntza Sailburu Carlos Perez-Nievasek azken asteotan gurekin biltzeko eta gure egoeraren berri jasotzeko azaldu duten prestutasuna.

- Ahalegin hori eskertuta eta aitortuta ere, argi eta garbi utzi nahi dugu aurrekontuan gordeta zegoen kopurua, eta, zer esanik ez, azkenean banatuko dena, nahikoa izatetik oso urrun dagoela. Ideia bat egiteko, 240.000 euroko poltsa horretatik, %65 (156.000 euro) izango da euskara hutsezko hedabideentzako, hau da, euskaraz dihardugun hedabideon aurrekontu globalaren % 7,6 baino ez.

- Era berean, argi adierazi behar dugu aurretik dirulaguntzekin gertatu dena erabat onartezina dela, eta ezin dela errepikatu: urte hasieran diru-kopuru bat iragarri, hil batzuk geroago kopuru hori zerora murriztu, azkenean iragarritakoaren %77 bantzeko. Euskarazko hedabideon sektorean 30 medio ari gara (11 aldizkari, 6 irrati, 2 telebista eta 11 agerkeri digital), 56 profesional gutzira, Iruñerri eta Iruñerriatik iparraldeko nafarrei zerbitzua emateko. Haietako batek ere merzei ez duen errespetu falta handia da haien guztien egunerokotasuna kolokan jartzea, jarri izan den moduan.

- Euskararen Legeak euskara sustatzeko agindu argia ematen dio Gobernuari. Hedabideon kasuan, sustapen hori laguntza egonkor eta nahikoen bidez gauzatu behar da, gure jarduera lasaitasun eta duintasun baldintza minimoetan garatu ahal izateko. Gogoratu beharra dago euskarazko aldizkari, irrati eta telebistok, txikiak izanik ere, ekarpen handia egiten diegula bai euskararen normalizazioari, inguruko berriak euskara hutsez landuz herritarrei informazioa euskaraz jasotzeko ohitura sortzen dugulako, eta bai gure inguruan bizi direnei ere, hedabide handiagoetan nekez agertzen diren berriak hurbiltasunez jasotzeko aukera ematen diegulako.

- Aurreko hori guztia, gure ustez, epe ertain-luzeko hitzarmen baten bidez baino ezin da lortu. Hitzarmen horrek ar-

gijaso beharkoluke zein den euskarazko hedabideon zeregina, zeregin hori duintasunez betetzeko zer behar duten, behar horietan zenbateko laguntza eman behar duen Gobernuak, eta laguntza hori jasotzeko nolako baldintzak bete behar ditugun hedabideok.

- Zentzu horretan, idatzi hau sinatu dugun hedabideok erabateko prestutasuna adierazi nahi diogu Gobernuari mahai baten inguruan eseri eta hitzarmen horren xehetasunen inguruan hitz egiten haste-ko. Gure ustez, elkarlanean aritzea da ataka honetatik atera eta alde biotarako onargarria ez ezik onuragarria ere izan daitekeen akordio batera iristeko bide bakarra.

Ttipi-Ttapa, Xuka, Guaixe, Nabarrerria, Kottarro, Karrika, Xapo, Marmari, Mailope, Zorroka eta Pulunpe aldizkariak, Xorroxin, Beleixe, Karrantze eta Esan-erran irratia, eta Ttipi-Ttapa eta Xaloea telebistak, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa.

Krisia norentzat?

Sarritan entzuten ari gara, egunero erranen nuke, hedabideetan, kallean, irrati-telebistetan... krisian gaudela eta gerrikoa estutu behar dugula! Hori entzuten dudana bakoitzean nire barnean odol bero bat borborka jartzen zait eta nire buruari galdera hauek egiten dizkiot; nor dago krisian? Urtarril eta ekaina bitartean, 112 milioi

euro irabazi dituan Nafarroako Kutxa krisian al dago? Edota urtearen lehenengo sei hilabeteetan 24,1 milioi euro irabazi zituen Condesa taldea? Edo 67,9 milioi irabazi dituen Cementos Portland da krisian dagoena? Gero eta gehiago sinesten dut beti bezala langileak garelako krisia pairatzen dugunak, kapitalismoak bere ekonomia berregituratzen duen bitartean.

Euskal Herrian gauzak ez daude hobeto, nahiz eta alderdi errejonalistek (EAJ-PNV eta UPN) behin eta berri-berri erran gure ekonomia sendo dagoela eta bertze tokietan baino hobeki gaudituko dugula egoera hau. Baina errealitatea hagitz ezberdina da, interes elektoralengatik saltzen digutenak eta egunerokotasunean langileok bizitzen dugunak ez dute zerikusirik, bi errealitate balira bezala, nahiz eta gobernuaren hitzak errealitatek hagitz urrun egon.

Gure eskualdean aroko gauzak ez daude askoz hobeto eta zoritxarrez egoera okerrera doala erran daiteke. Egoeraren lehenengo zantzua Zalainen aurkitu genuen. Pasa den uztailaren 28an (langileak oporrak hartzeko prest zeudenean) kaleratze batzuk planteatu zituen (zehazki 119), egoera txarra eta galerak argudiatuz. Irail hasieran hedabide batzuetan honako datu hau agertu zen, ordea; Condesa taldeak 24,1 milioi euro irabaziak zituen. Hau horrela, eta langileek planto egin ondoren, dena bertan behera gelditu zen. Hurrengo saiakera Lesa-

kako Arcelorrena izan zen, lan egunen eta oporren malgutasun bat planteatuz. Hemen komitearen ezetza zela-eta plana bertan behera gelditu zen. Gertakaririk larriena Funveran gertaturikoa izan da. Enpresak Erregulazio Espediente bat aurkeztu zuen salmenten jaitziera argudiatuz. Espediente horrek 188 langileei eragiten zien zuenki langile kopuru hori langabeziara joanen baitzateke. Kontuan hartu behar dugu Funverak izugarritzko irabaziak izan dituela azken urteetan, 2008an barne. Egoera honen aurrean, ELAko sekzio sindikalak proposamenari muzin egin eta enpresak aurkezten zuena onartu du aho batez, lantegiko langileak salduz eta engainatuz, langileei xantaia egin baitzien bere proposamena edo bertze aukerarik ez zegoela erranez. Benetan lotsagarria! Bertze lantegi batzuetan ere aurkeztu dituzte espedienteak, hala nola, Hidrorubber, Com-

posites Gurea, Irigoien Zerrategia eta Doneztebeko Aparanen. Denak irabaziak dituzten enpresak dira, baina irabazi tasa jaitsi denez, langileen soldaten kontura mantendu nahi dituzte irabaziak. Benetan lotsagarria enpresaren jokaera eta sindikatu batzuen jokoa egoera eta argudio hauek onartuz.

Bada garaia langileak elkartu eta *crack* egiten ari den sistema hau aldatzeko, elkarlan bat egiteko. Garaia da dauzkagun ezberdintasunak alde batera utzita alternatiba bat eskaintzeko, gizarte eredu aldatuz amildegia bazterrean dagoen sistema honi azkeneko bultzada eman eta behin betirako eror dadin. Denon lana da, lan handia baina beharrezkoa, deus ere ez dugulako galtzeko eta aunitz irabazteko! Borroka garaia da.

Koldo Saenz
LAB sindikatua

• 11 GALDERA LABUR •

Zenbat urte dituzu?

29 urte eginen ditut aurten.

Zergatik erabaki duzu horrelako itxura aldaketa egitea?

Modara egon beharra dago!

Nola deskribatuko zenuke zure burua?

Jendeak izarretan pentsatzen na-goela uste du baina laster izanen duzue ni ikusteko aukera.

Inuxente Eguneko monigotearekin nahasi al zaituzte?

Aizu, ni aski serioa naiz!

Olentzero, Bizar Zuri edo Erregeen oparia zara?

Denek hartu dute parte. Denen laguntza ezinbertzekoa da.

Zergatik aukeratu duzu kolore berdea?

Eta zergatik ez! Gure bailararen kolorea da!

Mozorrotuko al zara inauterietan?

Normalean inguruko inauteri guztietara joaten naiz.

Aukeran zer duzu nahiago: aldizkaria, telebista ala Internet?

Ez nuke bat aukeratzen asmatuko. Ez dakit...

Bortzirriak, Baztan, Malerreka, Bertizarana, Leitzaldea, Xareta... Zein duzu nahiago?

Denetan barna ibiliko naiz, baita mundu zabalean ere.

Bakarrik edo lagunekin egotea duzu nahiago?

Atera kontuak, 26.000 lagun ditut!

Orain arte ez zaitugu sobera ikusi itxura horrekin. Hemendik aitzinera gehiago ikusiko zaitugu?

Bai, dudarik gabe. Nahi izanez gero, egunero!



Izen-ABIZENAK

Bidaliko dute

edredoi fundak

albornoak

edredoi nordikoak

ohe estalkiak

maindireak

mantelak

kuxinak

toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Urtarrilaren 15etik aurrera

MERKEALDIA ASTE TXURIA

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

MENDIA

Goizueta aldean hilik aurkitutako mendizalea hipotermiagatik hil zen

Gaua mendian galduak pasatu ondotik, bi egun beranduago erreskatatu zuten gorpua

ttipi-ttapa

Ezbehar larria gertatu zen abenduaren 13-14an Ekaitzan. Larunbatarekin 36 eta 68 urteko bi mendizale iruindar galdu egin ziren eguraldi kaskarrarekin orientazioa galduta. Nafarroako Larrialdien Agentziak egun bereko arratsaldean jarri zuen martxan bi mendizaleak aurkitzeko salbamendu plana, eta igande eguerdian aurkitu zuten gaztea, Goizueta Elama erreka inguruan, zauriturik. Bigarren mendizalea, ordea, hilik aurkitu zuten igande arratsaldean. Biharamun goizean erreskatatu zuten gorpua. Medikuforentseak baieztatu zenez, iruindarra hipotermiarekin hil zen, eta ez buruan hartutako kolpearekin, hasieran uste



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eguraldi kontuan hartu beharreko ezaugarria da mendira joaterakoan.

bezala. Aipatzekoa da, Goizuetako suhiltzaile bolondresen lana garrantzitsua izan zela erreskatean, eurek aurkitu baitzuten hilotza.

AHOLKUAK

Mendian sor daitekeen

arriskua saihesteko, Nafarroako Gobernuak zenbait aholku eman ditu mendira atera aitzinetik kontuan hartzeko:

-Irteera norbere **prestakuntza fisikoren eta mendiaren**

ezagutzaren arabera aukeratu eta mapa, liburu eta gidak erabili.

-Ibilbideari eta eguraldiari buruzko **informazioa bildu**, eta eguraldia kaxkartuz gero, inguruan aterperik ote dagoen jakin.

-Ibilbidearen araberrako **materiala eta arropa** eraman. Sakelekoa, janari energetikoak eta ura ere bai.

-**Ibilbidearen berri** eman ezagunei eta ez bakarrik joan.

-Udan ibiltzeko errazak diruditen tokiak **neguan arriskutsuagoak** izan daitezke.

-Mendian dauden arriskuei buruzko **seinalizazioekin** adi egon.

-Bat-bateko **eguraldi aldaketak**, ekaitza edo lainoa ohikoak izan daitezkeela pentsatu.

-Maiz **edan eta jan** eta tarteka atseden hartu.

-Istripua izan edo galduz gero, larrialdietako **112** telefonora deitu eta ez mugitu tokitik.

IREKI BERRIA

Aholkularitza fiskala,
kontablea eta laborala

Alkaiaga s.l.p.
asesoría

Alkaiaga industrialdea (Bera)
Zubiondo jatetxetik 50m-ra
Tel. 948 630 428
asesoria@alkaiaga.net

BERA

Banku helbideratzea ere online egin daiteke Udalaren web orrian

Zerbitzurik erosoena eskaintzeko, ordainketak egin eta ziurtagiriak ere eska daitezke

ttipi-ttapa

Orain arte, Udalaren web orrian egin zitezkeen tramiteez gain, berzte baterako aukera era badago orain: banku helbideratzeen eskakera.

Zirkulazio zerga autolikidatzea, ordainagiriaren ordainketa, katastro ziurtagiriak eskatzea eta errolda ziurtagiriak eskatzea ziren Udalaren Interneteko atariak orain arte eskaintzen zuena. Baina poliki-poliki tramiteak Internetez egiteko aukera zabalitzen ari da Udala, Animaren aholkularitzarekin eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Tramiteak helbide honetan egin daitezke: www.berakoudala.net/udala/tramiteak. Herriko Etxeko bulegoetan edo telefono bidez egiten diren tramiteetan bezala, datuak babesean gordetako dira. Zerbitzu honek, gainera, erosotasuna eskaintzen du, eguneko 24 ordutan zabalik baitago.

Errege Kabalgatarako hitzordua

Urtero bezala, urtarriaren 5ean, Errege Kabalgata eginen da he-



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

Txirrindularitza profesionalari aio erran dio Bruk

Profesionalen zazpi denboraldi egin ondotik, Jon Bru herriko txirrindulariak bukatutzat eman du bere ibilbidea. La Pecol, Kaiku eta Euskaltel taldeetan ibili da Bru. Kaiku taldean lortutako emaitza onei esker egin zuen Euskaltelerako saltoa duela bi urte, eta bi denboraldi egin ditu hor, 2007a eta 2008a. Baina ez zuen bere onena ematerik lortu eta Euskaltelek ez dio kontraturik berritu. Joan den irailean jakinarazi zion Euskaltelek ez zuela taldean segitzeko aukerarik izanen, eta geroztik Espainian zein Portugalen talde bila ibili arren, ez du nahi zuena aurkitu. Argazkian ageri direnak Jon Bru -ezkerrean, Kaikuren kamisetarekin- eta Patxi Vila -eskuinean, Lampreko kamisetarekin- dira, gure herritik atera diren bi txirrindulari haundi.

rriaren barna. 18:30erako paratu dute hitzordua eta hortik aitzinera Erregeak Itzea auzotik Eztegarapilotalekura joanen dira. Han eginen zaie ongi etorria Meltxor, Gaspar eta Baltasarri. Dena den, kabalgata atera aitzinetik herriko karriketaren barna ibiliko dira erregeen pajeak edo laguntzaileak neska-mutikoen

gutunak biltzen. 15:30etik aitzinera izanen da hori.

Jaiotza biziduna ere Eztegarapilotalekuan eginen da.

Santa Barbarara Igoera hilaren 10ean

Mantale Mendi Lasterketa Taldeak, Agerra Mendi taldeak eta Gure Txokoa elkarteak, Uda-

laren laguntzaz bigarren urtez antolatutako Santa Barbarara Igoera urtarriaren 10ean eginen da, Mendiaren Egunean barrenean. Joan den urtean bezalaxe, igoera honekin omenaldia eskaini nahi zaie duela ia bi urte Taillon mendian hil ziren Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegiri. Horregatik,

konpetizioa baino gehiago, jendearen parte-hartzea sustatzea da Mantalaren helburua.

Ibilbidea kiroldegitik abiatuta Santa Barbara igo eta berriz ere kiroldegira bueltatzea izanen da. Parte hartzeko moduak hainbat dira eta izena emateko epea urtarriaren 3an bukatuko da (Errekalde Ostatua, Lixoia Ostatua, Puri Enea, Kiroldegia).

-14:30ean **ibilaldi gidatua**.

-15:30ean, 16 eta 65 urte arteko jendeari zuzendutako **binakako kronoigera**. Mutilen bikoteek, nesken bikoteek eta bikote mistoek parte hartzen ahal dute. Denborak hartuko dira, baina ibilaldi ez konpetitibo denez, ez da sailkapenik ez aparteko saririk emanen ere.

-14:45ean, **haurrentzako lasterketak** izanen dira kiroldegi inguruan.

Dortsalak egunean bertan banatuko dira Gure Txokoa, 14:00etatik aitzinera.

Igoeraren ondotik, berendua eta zozketak eginen dira parte-hartzaile guztien artean. Mendiko dokumental emanaldia ere eskainiko da.

Xirri
 Altzate 1 · BERA
 Tfnoa: 948 631 462

BERA
 Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
 Tel: 948 625 597 • Zainan, 42 A • BERA

arropak · maindireak
 mantak · nordikoak
 toallak · kortinak
 alfonsbrak
Goya
 Altzate, 5 · Tel: 948 630 083

LABE ZAR
 Tel: 948 631 076 · BERA

LESAKA

Txirula lore-dendarena izan da herriko erakusleihorik politena

Angel Irazokik irabazi du 300 euroko erosketa bonoa

Aitor AROTZENA

Abenduaren 12tik 8ra erakusleio lehiaketa antolatu zuen Udalak. Lehiaketa honetan herriko denda eta zerbitzuek hartu zuten parte eta erakusleio hobereena aukeratzeko, beraien bezeroen artean bozketa papeleta batzuk banatu zituzten. Norberaren datuak eta aukeratuak edo zerbitzuaren izenarekin bete ondotik, papeleta Turismo Bulegoan utzi behar zen.

Abenduaren 19an jakinarazi zen erakusleio irabazlearen izena. Hain zuzen, bezeroen ustez, Raket Migeltorenak txukun-txukun apainduta-ko Txirula lore-dendaren eskaparatea zen dotorena.

Erakusleio hoberearen aukeraketan parte hartu zuten bezeroen artean Lesakako denda eta zerbitzu desberdinetan erabiltzeko 300 euroko bono bat zozketatu zen edo zehatzago errateko 50 euroko 2 bale, 25 euroko 4 bale, 20 euroko 4 bale eta 10 euroko 2 bale. Angel Irazokiri egokitu zaien sari hau eta herriko 6 dendatan guztien erabilgarritasun beharko



UTZITAKO ARGAZKIA

Angel Irazokik Txirula dendaren atarian hartu zuen 300 euroko erosketa bonoa, Cederna-Garalur erakunde-ko Arantxa Arregiren eskutik.

du bono hau urtarrilaren 5a baino lehen.

Zerbitzuen Elkartearen zuzendaritza batzorde berria

Bertze aldetik, Lesakako Merkatarien Elkarteak Zuzendaritza Batzordea berri du, aitzinekoak bi urte beteak baitzuten karguan. Barceló bidaia-agentziako Mainer Susperregi da presidente berria; Oreka dietetika dendako Sandra Legasa presidenteordea; Telletxea

argazki-dendako Jasone Telletxea diruzaina; Intzuri optikako Naiara Alberro idazkaria eta bokalak Ordoki altzari-dendako Mari Jose Capdeki eta Goizalde janari-dendako Edurne Portu.

Bidasoan nabigatzeagatik isuna

Lesakako bizilagun bati 240 euroko isuna paratu dio Kantauriko Konfederazio Hidrografiko Bidasoa ibaian nabigatzeagatik. Izan ere, Uraren Legearen

arabera, «ubide publikoetan nabigatzeko» aitzinetik erakunde horren baimena lortu behar da.

Errege Kabalgata

Eguberrietako ospakizun gehienak urte zaharrenekin joan baldin baziren ere, urtarrilaren 5eko Errege Kabalgata gelditzen da oraindik. Arratsaldeko 5etan Zahar Etxera bisita egin ondotik, 18:00etan abiatuko da Kabalgata Irain eskolatik. Frontoian Jaiotza izanen da.

BORTZIRIAK

Ipuin lehiaketako sariak banatu dira Beran

A.A.

Bortziritako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketako sariak banatu ziren Berako liburutegian abenduaren 19an. LHko 3. eta 4. mailan, Berako Labiaga ikastolako Arantxa Larrañagaren *Xagua eta eskularrua*, Berako Ricardo Barojako Alaitz Aranibarren *Birziklatzen ikasi* eta Etxalarko eskolako Iker Bizenteren *Joxe Pantonio hegan* ipuinek saritu dituzte.

LHko 5. eta 6. mailan Lesakako Irain eskolako Johanna Ramirezren *Maiderrrentzat bihotzez*, Lesakako Tantarumairu Ikastolako Martin Lanzen *Zapatila bilaka* eta ikastetxe bereko Beñat Conderen *Oilo Pepitoaren lagunak* saritu dituzte.

DBHko 1. eta 2. mailan, Labiaga Ikastolako Patrizia Etxegarai lesakarraren *Edan botilatik!*, Arantzako eskolako Gurutze Iparagirren *Zapata baten istorioa* eta Toki-Ona Institutuko Itxaso Elizagoien etxalartarraren *Desagertutako neskatxa* saritu dituzte.

IRU BIDE
Erregegia - Asador
Biharra, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
ZABIA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

MERTZERIA
Deñe
LENTZERIA
Tel: 948 627 514
Behoko Plaza, 10 - LESAKA

GOJZ-ALDE
JANARJENDEA
Bittoria 41 • ☎ 948 637516 • LESAKA

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826



Lesakako Udalak antolatutako erakusleihu lehiaketatan irabazlea. 2008ko abendua



...
TXIRULA LOREDENDA
Albistur 39, Lesaka
tel. 948 627 542
...

ETXALAR

Jende parrasta ibili da Olentzeroren etorreran eta Ela-ela eskean

Errege egunean, urtero bezala, txokolatada eginen dute neska-mutikoek Larraburuan

Joseba eta Nerea

Aurtengoak ere Eguberri jendetsuak izan dira Etxalarren. Abenduaren 24ko arratsean herritar andana elkartu zen eliz atarian, Olentzerori ongietorria egiteko. Betikoz mezaren ondotik, kalejira egin zen karrikaz karrika, trikitalari, txistulari eta abesbatzako kantarien laguntzaz. Haur, gazte eta, batez ere, guraso franko ibili ziren, hotz ederrari aitzineginez, auzoz auzo kantari. Aspaldiko ohitura da kalejira hau, eta ematen du, azken urteotan aunitz indartzen ari dela. Base-ritar jantzitako aunitz ikusi genuen, eta jendeak ilusioz kantatu zituen Eguberrietako abestiak. Haurrak kontent eta gurasoak ere bai. Elutsan akabatu zen besta luntz ederrarekin.

ELA-ELA ESKEA, URTEROKO ZITA

Ela-ela, nor da, nor da, ni naiz urteberri, zer

dakartzu berri, urarengaina, bakea ta osasuna... Abesti luze eta korapilatsua da, baina herriko haur guztiak, aski ttikitatik, ederki ikasten dute. Urteko azken egunean, abenduaren 31n, goizetik eguerdira arte, etxez etxe eskean ibili ziren abestia kantatuz, *etxe-koandre onak eta nagusi-hobeak* ematen zizkieten urtatzak biltzen. Hiru-lau urteko haurretatik 12koak bitarte, herriko haur guztiak ibili ziren baseritarrez jantzita, sas-kiak eskuan, eskean.

Kontzentrazioa urteko azken egunean

Aspaldiko ohiturari segituz, abenduaren 31n, kontzentrazio isila egin zen udaletxeko arkupeetan, Eguberrietan, hainbat arrazoi tarteko, gure artean egoterik ez duten preso eta iheslariak oroitzeke. Azken urtea bereziki gogorra izan da eskualdeari dagokionez,



atxiloketa eta ihesaldi aunitz izan baitira. Horiek guztiak eta bertze hainbat oroiu zituen 30 bat lagunekoa kuadrillak.

Txokolatada Larraburuan

Larraburua elkarteak ohitura polita dauka Eguberrietan. Urtero-urtero herriko adinduek gaztetxoak txokolatada gonbidatzen dituzte Errege egunean, urtarrilaren 6an. Aurten ere 17:00etarako hainbat haur hurbilduko dira Larraburuko atera txokolate beroaz eta errege errokoaz gozatzen. Ondotik, hainbat sari eta erregalu banatuko dira zozketa batean.

Mus eta Partxis Txapelketa

Abenduaren 21ean abiatu zen hilabete eta erdiz luzatu den Larraburuko Mus eta Partxis



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Landagain eskolara ere ailegatu zen Olentzero.

Txapelketa, eta finala Urteberri egunean jokatuko zen. Lehenbiziko saria Jose Luis Arretzek eta Jabier Irisarrik Santiago Olasagasti eta Daniel Iparragirrenen kontra jokatutako partidaren erabaki zen, eta hirugarren eta laugarren sariak Jesus Ansalas eta Leonzio Arburuak eta Gaston

Lestucci eta Santiago Mitxelorenak jokatutuzten. Partxis txapelketari dagokionez, kanporaketa sistema desberdina erabili dute eta lerro hauek idazterakoan ezin dugu txapeldun posibleen izenik eman. Zurrioren emanen ditugu xehetasun guztiak.

Javier Manterola
Tecnico instalatzailea
iturgintza • gasa
kalafakzioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 • ETXALAR

bentamiguel
denda, jatetxea eta estatua
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
Tabakoa
Likorrak
Janandenda
Urdategia
Ibardingo Lepoa • 948 631 209

ERROTARZAR
harategia
Bertako produktua
Eztegara, 3 • BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ERREKALDE
PLATER KONTABILITADURAK
PARTISANAK
BOKALAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

ARANTZA

Trakatan-trakatan astelehen ilunabarrean ailegatuko dira Hiru Erregeak

Ohi bezala, meza ondotik opariak banatuko dituzte Elizan

Nerea ALTZURI

Olentzeroren opariak gozaten ari gara dagoneko. Gabon Egunean ikazkinak opari mordoxka banatu zituen herrietako etxeetan. Orain, berriz, Ekialde Hurbileko Meltxor, Gaspar eta Baltasar Erregeak etorriko dira urtarrilaren 5eko ilunabarrean. Hiru Erregeak laguntzaile taldearekin ailegatuko dira eta musikarien doinuek irekiko diete bidea.

Herriko plazan, harrera eginen zaie guzietan. Herriko Etxeko ordezkariak eta herritar aunitz biltzen da bertan eta seguru hala izanen dela aurten ere. Gero, Elizan, ohiko ohiturari jarraituz, opari banaketa eginen da mezondoan. Beraz, Errege Bezperan, heldu den astelehenean, ohiko kabalgata eginen da, ilunabarreko mezaren ondotik. Erraten dutenez, etxean opariak hartzeko esperantza dutenek zapatak ongi ongi garbitu beharko dituzte.

Herriko pilotaren historia oroitzeko

Pilotak zaletu aunitz ditu herrian. Pilotari gaztetxoak eta helduxea-

goak egon badaude gaur egun, eta pilotari izandakoak ere nabarmendu behar dira. Tartean pilotatik erretiratu den Antton Maiz (Maiz II.a)

aski ezaguna da eta erreto handia utzi du pilotari profesinalen munduan.

Hau horrela, ortziral honetarako, hilbeltzaren

2rako, pilotari buruzko bideo emanaldia antolatu du Ekaizta Elkarteak eta Maiz bera tartean, partida bat oroituko da. Horrez gain, herriko besten barne, 1995ean jokatu ziren finaleko partidak ikusteko modua ere izanen da. 22:00etan hasiko da emanaldia, Zahar Txokon.

'Zapata baten istorioa'

Abenduaren 19an egin zen Berako Kultur Batzordeak eta Herri Liburutegiak elkarlanean antolaturiko Bortziritako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketako sari banaketa. Hiru kategoriatan banatu zen lehiaketa eta DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleen lanak biltzen zuten C mailan, Gurutze Iparragirre Oskoz eskolako ikasleak bigarren saria jaso zuen, *Zapata baten istorioa* izeneko lanarekin. Ez da lehen aldia Gurutzek bere idatzizko lanekin saria eskuartzen duela... Zorionak!



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Eskolako neska-mutikoen antzerkiak

Lau antzezlan eskaini zituzten eskolako neska-mutikoeak abenduan urtero jendaurrean eskaintzen dituzten ikuskizunetan. *Artzain gezurtia, Olentzeroren gaixotasuna, Piraten topaketa eta Herriko Olinpiadak* izeneko lanak egin zituzten. Aktore-aktoreak kontent gelditu ziren egindako lanarekin eta ikusleak ere gustura. 2009ko abenduan berriz!

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

iparra

Raul Iparragirre Alzuri
FISIOTERAPEUTA

Bizkarreko minak
Kirel lesioak
Haurren arnas fisioterapia
Osteopatia

00 33 559 48 19 32
Jaiakibel 2 - HENDAIA

LEGARRA

Produktu batzuetan kolore baikoitzak bere deskontua du:

DESKONTUAK

- -60% eta -50%
- -40 % oparietan
- -30 %
- -20 % oparietan

Tel/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

SUNBILLA

Olentzero mendira eta Hiru Errege Magoak herrira iristear

Eliza atarian Jaiotza biziduna ikusteko aukera izanen da

Jaione OTXANDORENA

Azkeneko **Ttipi-Tta-**paren alean idaztea atzendu zitzaidanez, lehenik eta behin Urteberri On guztiei!

Dagoeneko joan zaiugu gure Olentzero mendira, datorren urteko ikatza egitera eta bere lekukoa hartzera hemen datoz Meltxor, Gaspar eta Baltasar Erregeak beraien hiru mutilekin. Bertze urte batez, Sunbillara arratsaldeko zazpiak aldeira iritsiko dira, egun horretan izaten den me-

zaren ondotik, hain zuzen ere. Meza akitu ondotik, herriko abesbatza Itturburu ondora joanen da Hiru Erregeei ongietorria egitera eta Elizarainoko bidean laguntzera.

Eliza atarian nahi duen guztiak Meltxor, Gaspar eta Baltasari muxu emateko edo agurtzeko aukera izanen du eta hauek goxokiak eta opariak banatuko dituzte guztientzat. Eliaz atarian bertan egonen da Jaiotza ere bere artzaintxo eta

guzti. Nahi duenak aukera polita du urtarrilaren 5ean ilunabar aldera, Erregeak eta Jaiotza ikusi eta arratsalde polit bat pasatzeko eta opariak jaso nahi duenak badaki: txintxo portatu!

Mendaurrera irteera

Urtarrilaren 4an, igande honetan, Mendaurrera ateraldia antolatu du Ulibeltzak Mendi Taldeak. Irteera 8:00etan izanen da betiko tokitik.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Ilusioz hartuko dute aurten ere herriko haur eta gaztetxoek Hiru Errege Magoen etorrera.



LAN ESKAINTZA

Bortzirietako Euskara Mankomunitatean, egun erdiz eta behin-behinean arituko den administraria kontratatzeko hautaketa prozesua

ESKAERAK:

- Eskaera urtarrilaren 22ko 12:00ak baino lehen aurkeztu behar da, beheko helbidean.
- Deialdia eta gainerako xehetasun guztiei buruzko informazioa eskuratzeko deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko posta elektronikora.

Arantzan, 2008ko abenduaren 17an
Mankomunitateko lehendakaria, Ainara Maia Almandotz.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Telefonoa: 948634125 e-posta: euskara@bortziria.org
Helbidea: Herriko Plaza 7, 31790 ARANTZA

DONEZTEBE

Loli Ostolazak jaso du 2008ko Urrezko Titarea

Santa Luzia Egunean egin zioten omenaldia

ttipi-ttapa

Urtero bezala, Santa Luzia Eguna ospatu zen Donezteben abenduaren 13an. Garai batean garrantzi handiko besta izaten zen, mendi mutilak tenore honetan itzultzen baitziren etxera Eguberriak pasatzera. Gaur egun, ordea, ospakizun apalagoa da. Duela zenbait urte Cederna-Garalur Elkarteak besta hau berreskuratzeko asmoa agertu zuen eta horretarako Udalaren laguntza jaso zuen.

Mezarekin hasi zen eguneko egitaraua eta hemen omenaldia jaso zuen Loli Ostolazak. 2008ko Urrezko Titarea jaso zuen baita lore-sorta eder bat ere,

urteetan jostun gisa egindako lana gorai-patzeko. Ondotik, Elizako arkupeetan segitu zuen bestak. Eguraldiak ez zuen aunitzik lagundu, eta hortaz, arkupeetan pilatu ziren artisauak. Berrietasun gisa, munduko janariak erakusgai egon ziren, eta dastatzeko aukera ere izan zen.

Arratsaldean Kike, Koko eta Moko pila-zoek haurrentzako ikuskizuna eskaini zuten, eta biharamunean, igandean, Urrezko Aizkorako saioa izan zen: Miel Mindegia eta Antonio Senosiain, Donato Larretxea eta Aitzol Atutxaren kontra; eta Ander Erasan eta



ARGAZKIA: ZARBO IBARROLA

Loli Ostolaza Urrezko Titarea eta lore-sorta eskuan dituela senitartekoekin.

Julen Kañamares, David Amillano eta Iñaki Vazquez *Sakanaren* aurka. Lehenbizikotian, Maila Nagusian, Larretxea eta Atutxa atera ziren garaile eta gazte mailako saioan, Erasan eta Kañamares.

Txiki Parkerako sarituen izenak komertzioetan

Abenduaren 22az geroztik zabalik dagoen Txiki Parkjolas-parkeko 100 sarrera zozketatu zituen Doneztebarrak Merkatarien El-

karteak abenduan eta saritu guztien zerrenda Elkarteko komertzioetan paratu dute ikusgai. Parkea urtarriaren 4a arte egonen da zabalik eta norbaitek merkatariek oparitutako sarrera horietako bat irabazi duen jakin nahi badu, aipatu komertzio horietako batera joan beharko du.

Oskar Mindegia judoko 3. DANA

Abenduaren 12an Madrilan egindako estatuko judoaren ospakizunean izan zen Os-

car Mindegia Doneztebeko judoka eta urteetan judoaren munduan egin duen lana saritzeko aipamena jaso zuen. Izan ere, judoko hirugarren DANA da Oscar eta kategoria ona adierazi nahi du horrek.

Judoko kategoriari KYU (ikasleak) eta DAN (irakasleak) gauden arabera banatzen dira. Horietan mailarik altuena 12. DANA da eta hori pertsona bakarrik baino ez du lortua. Doneztebarra, oraingoz, hirugarren DANA da.



Añorgatxiki 11 behea
20018 DONOSTIA
Tel: 943 368 781
Fax: 943 368 781
Mug. 671 073 888
behetik@behetik.com



PLATAFORMA JASOTZAILEAK



MALERREKA

«Arazoa hemen» dagoela erantzun die Osasun Departamentuak alkateei

Medikuen plantila betea dagoela eta ez dela langile gehiago bidaliko erran die Gobernuak

ttipi-ttapa

Medikuen zerbitzua behar bezala bermatzeko exijituz, Malerreka eta Bertizaranako alkateek Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentura egindako bisitak esku hutsik ekarri ditu, arazoa konpondu gabe. Ezkurra, Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien, Urrotz, Zubieta, Ituren, Sunbilla eta Bertizaranako udal ordezkariak abenduaren 12an Osasunbidearekin bildu ziren, baina «arazoa hemen» dagoela erantzun zieten.

Malerreka eta Bertizaranako mediku beharrrak asetzeko langile nahiko badagoela adierazi zieten Iruñean, hau da, bortz medikuko plantila-lau mediku eta pediatra bat—betea dagoela.

Abenduaren 18an Osasun Kontseilua bildu zen Donezteben, medikuen ordezkariak eta herrietako udal ardurdunak, baina deus lor-

tu gabe atera ziren denak. Medikuek dagozkien opor egunak hartu ezinik dabilta, baldintza egokietan lanik egin ezinik, eta alkate zein

herritarrak herrietako kontsultategiak ixteko beldur dira. Eta batzuek zein bertzeek egoerak okerrera egingen duela uste dute.

Gobernuarekin egindako lehen bilkuran atarabiderik jaso ez bazuten ere, kexa berriz transmitituko dutela adierazi dute udal ordezkariak. Bitartean, orain arte bezala. Ez dute mediku gehiago espero, eta mediku eskasiagatik zenbait egunez herrietako kontsultak ixten segituko dute, eta gaixoei Doneztebera joan beharko dute artatuak izateko.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Pedro M^a Bañares izanen da Nafarroako Adinekoen Kontseiluko eskualdearen ordezkari berria

Abenduaren 16an bildu zen Nafarroako Adinekoen Kontseilua eta orduan izendatu zituzten kide berriak. Orain arte, Arkupeak Erretiratu eta Jubilatu Elkartearen izenean Kontseiluan egon dena Felipe Ganboa izan da, baina hemendik aitzinera, Pedro M^a Bañaresek beteko du toki hori. Argazkian behetiko lerroan ezkerrean dauden biak dira Bañares eta Ganboa.

Institutuko zozketa

Mendaur Institutuko ikasleek zate bat zozketatu zuten urte hondarrean eta aurtengo zenbaki saritua 3.162 izan da. Zenbakiaren jabeak Ostiz dendara joan beharko du dagokion saria jasotzera.

sarobe
guztegia okindegia

C/ de eztegara 25 bajo
31780 bera (navarra) T.948 63 08 99
www.sarobe.net

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

BEINTZAKO OSTATUA

© 948 45 00 14
orbela@alberguesnavarra.com
www.alberguesnavarra.com/beintza
31753 BEINTZA LABAIEN

ORBELA
turismo y albergues

AMEZTIA

Astelehenetik larunbatera 6:00etatik aitzinera irekia
Igantetan 9:00etatik aitzinera

Bokadilloak, razioak, sandwich-ak,

DEITU 948 450 028ra eta eraman %15 eko DESKONTUarekin

PROMOZIOA

AMEZTIA Bokatak 948 450 028

ITUREN

Dena prest dago Errege Bezperako arratserako

Ituren eta Aurtizko herriko ostatuetan afaria izanen da

Arkaitz MINDEGIA

Olentzero eta Urte-zahar eguna dagoeneko pasatu dira baina urtarrilaren 5a, Errege Bezpera Eguna ospakizun bereziarekin ospatzen dugu herrian.

Arratsaldean herriko gaztetxoak joareak jarrri eta herriari ohiko itzulia emanen diote eta ilunabarrean tragoxka batzuk hartu eta afarirako txanda ailegatuko da. Iturengo Herriko Ostatuan eta Aurtizko ostatuan afaria izanen da egun horretan. Joan nahi nahi duenak oraindik ostatuetara deitu eta izena eman dezake. Afari goxoaren ondotik, Ibintza Kultur Taldeak antolatutako zozketaren sari banaketa egingen da. Zenbaki sariak hurrengo aldizkarian aipatuko dira. Eta behin hori amaituta musika eta joare soinuak ez dira faltako Ituren, Aurtitz eta Zubietan. Inauteriak hurbiltzen ari direla nabari da eta gau



ARGAZKIAK: JULI LOIARTE

Antzerkiak eginez hartu dituzte oporrak eskolako ikasleek

Goizean, 9:30ean hasi eta eguerdira bitarte azken hilabeteetan ikasitako dantza eta kantak eskaini zituzten eskolako ikasleek abenduaren 19an. Herriko Etxeko Ganbaran bildutako herritar zein zubietarrek gustura segitu zuten ikuskizuna eta goizari behar bezalako segida emateko, luntxa izan zuten. Horren ondotik, oporrak hartu zituzten neska-mutikoeak.

guztia akordeoi eta joareekin herriz ibiliko gara.

Xorroxin zuzenean

Xorroxin irriatik abenduaren 26ko ilu-

nabarrea herrian egin zuen. 19:00etatik 21:00-etara zuzeneko saioa eskaini zuen Herriko Etxeko ganbaratik. Jende parrasta elkartu zen (Ander Erasun, Txomin Mindegia,

Trikidantz taldea, alkatteak, Ibintza Kultur Taldeko eta Burrumbako kideak, Andres Iñigo, Jagoba Manterola... Eta denen hitzak entzuteko eta ikusteko aukera izan zen.



PERTSONAIA

Andres IÑIGO

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzan bertze lau urtez

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kide izaten segituko du bertze lau urtez Andres Iñigo euskaltzainak. Azaroaren 28an egingutako bilkuran berri zuten zuzendaritza Euskaltzaindiak eta orain arte bezala, Jagon sailburua izanen da Iñigo. Berekin batera, hauek izanen dira zuzendaritzako kideak: euskaltzainburua Andres Urrutia; buruordea Beñat Oihartzabal; idazkaria Xabier Kintana; diruzaina Jose Luis Lizundia eta Iker sailburua Andoni Sagarna. Azken hau Henrike Knörreren ordeztatu da.



H. LOPEZ

FONTANERÍA • ITURGINTZA
Santiago 93, Elizondo
Tel. 948 452 126

%10^{eko} DESKONTUA
kupoi hau aurkeztuta



Manparen hilabetea!

ARESO

Manu Iturrioz izanen da Guraso Elkarte berrituko zuzendaria

Idoia Arraigo, Ana Goñi eta Sandra Gurutxarri dira beste kide berriak

Juana Mari SAIZAR

Guraso Elkarteko batzordea berritu egin da eta kide berriak sartu dira. Horrela, hemendik aurrera, Manu Iturrioz izango da lehendakaria, eta berarekin batera, hauek egongo dira batzordean: Idoia Arraigo lehendakariordea izango da, Ana Goñi idazkaria eta Sandra Gurutxarri diruzaina. Bozketaren ondoren gehien bozkatuak izan dira.

Eguberrietako tailerrak

Euskara Zerbitzuaren eskutik, eskolako ume guztiendako tailerrak egin dira egun hauetan. Abenduaren 26an eta 30ean, 10:00etatik 13:00etara Ludotekan aritzen diren begiraleekin lanean aritu ziren.

Festa Batzordeko bilera

Festa Batzordea osatzen duten herriko tal-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Elurak ez du arazorik sortu herrian

Eguraldia notizia izan dugu urte amaieran. Izan ere, azken hilabeteen hirugarren elurtea izan genuen, baina herrian, egunerokoan, ia ez dugu somatu ere egin. Udalak joan den urtean herri lanetarako erabiltzen den autoari elurra kentzeko pala jarri zion eta, eta esan behar da, goizean goiz, 5:30erako lanean ikusi dugula, lanera joan behar duten herritarrei bidea irekitzen, baita industrialdea garbitzen ere. Eskolak hasierako ere bidexkak irekiak egon dira eta herria garbituz bukatzen zuen goizeko lana. Zerbitzu ona eta probetxuzkoa da, denok eskertzen duguna.

deetako eragile desberdinak udaletxean bildu ziren joan den abenduaren 16an. Kontuak eman zituzten eta Egu-

berriak, inauteriak eta herriko festen inguruan hizketan aritu ziren.

Olentzerori ongi-etorri egin ondotik, Erre-

geen bisitaldia izanen dugu laster. Ea guraso eta umeek ongi-etorri polita prestatzen dieten.

ARANO

Larreak erretzeko baimena urtarrilaren 31 arte eska daiteke

Kontxi KLABER

Larreak erre nahi dituenak udaletxean egin beharko du eskaera, eta horretarako dokumentazio hau aurkeztu beharko da: baimen ofiziala eta lur eremuaren eskritura eta lokalizazioa. Eskera egiteko epea urtarrilaren 31 arte egongo da zabalik.

Abereen katastroa

Herriko abeltzainak abereen katastroa egiteko bildu ziren udaletxean abenduaren 18ko arratsaldean.

Ur horniketa

Urteko lehenengo hilabetetan obrak hasi arren, abenduan hornitu zuten azkenik Suro auzoa herriko ur kloratuekin. Orain artean auzoko ura tratatu gabea izan da.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



SEAT



HYUNDAI

AUDI

ZOANSA

MARKA GUZTEN KONPONKETA

Banarta, 2 · Alkaiaga industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)

Tel: 948 625 555 · Faxa: 948 625 505

LEITZA

Zintzarriak joz egingen diegu ongietorria Hiru Errege Magoei

Urtarrilaren 4an eta 5ean egingen diren ekitaldiekin bukatuko dira Eguberrietako ospakizunak

ttipi-ttapa

Hiru Errege Magoen etorrera iragarritz, aspal-diko ohiturari helduko zaion aurten ere: zintzarriak jotzen ibiliko dira herritarrak urtarrilaren 4an eta 5ean.

Hilaren 4an, igande honetan, 18:30etik aurrera Erregeen laguntzaileak neska-mutikoen eskutitzak jasotzera hurbilduko dira plazara. Gauerdian, berriz, 00:00etan, zintzarriak jotzen ibiliko dira helduak herri guztian barna.

Biharamunean, urtarrilak 5, umeen txanda izanen da. Hala, Hiru Erregeen etorrera iragari eta espiritu txarrak aldentzeko zintzarriak jotzen ibiliko direnak gaztetxoek izanen dira. Goizean izanen da hori, eta arratsaldean, 18:30etik aurrera ailegatuko dira Ekialde Hurbiletik Meltxor, Gaspar eta Baltasar.

Egunari akabera emateko, gestorak urteroko afaria egingen du kabalgata egunean.

OPARIAK ETXEETARA

ERAMATEKO IZENA EMAN

Errege kabalgataren ondoren, hirukotea euren laguntzaileekin etxez-etxe ibiltzen da opariak

banatzen, baina horretarako izena eta telefonoa utzi behar dira aurretik. Astiz eta Maimur liburudendetan edo Karrape Irratian apuntatu beharko da.

Atsaureen kapelari buruzko tailerra

Aurten ere goiz ailegatuko dira inauteriak eta egun hauetan garrantzi

berezia izanen dute Atsaureek. Duela gutxi berreskuratu zen Atsaureen kalejira eta aurten ere ez du hutsik egingen.

Atsaureak bata bestetik desberdintzen dituen burukoari eta soinekoari ezarritako apaingarriak izaten dira, eta norberak berea nahi bezala dekora dezan, horri buruzko tailerra egingen da urtarrilaren 10ean.

Kapela nola diseinatu erakusten duen ikastaroa izanen da eta ondorki, Atsaureen kalejirari buruzko bilera egingen da.

Kantu-jiraren hitzordua hilaren 9an

Herriko kantuzale talde baten ekimenez, azaroaren 14an abiatu zuten kantu-jira izeneko ekimena. Gerora, aben-

duaren 12an berriz elkartu ziren kalean, tabernan edo elkartearen abesteko eta hurrengo hitzordua urtarrilaren 9an izanen dute. Ohi bezala, 19:00etan bilduko dira Aurrera Elkartearen. Ekimenari segida emateko asmoa dutela adierazi dute bultzatzaileek eta hala, hilabeteko bigarren ostiraletan elkartuko dira, ordu eta toki berean.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Erletako ikasleak Amerika ezagutzuz

Erleta eskolako 4. mailako ikasleek Amerikaren inguruko erakusketa zabaldu zuten eskolako bideo gelan. Horren barne, ikasle guztiei eta 4. mailako gelako gurasoei emanaldi gidatuak eskaini zizkieten. Batzuek kontinentearen historia azaldu zuten, beste batzuek indigenen berri eman zuten, tartean, kondairak, lanabesak, musika tresnak, argazkiak... erakutsiz. Erakusketaren nondik norakoak bikain azaldu ondoren, nahi zituzten mahaiak eta gauzak ikusteko aukera izan zuten. Horrez gain, *La misión* pelikula ikusteko eta aztertzeko aukera izan zuten ikasleek. Mendoza eta honen lagunak, eliza, espainiarrak eta portugaldarrak bere lekuan kokatu zituzten.

Manuel Lasarteren liburu eta diskoa

Duela 81 urte Leitza sortu zen Manuel Lasarte bertsolari haundiari buruzko liburu eta diskoa argitaratu ditu Iñaki Zubizarreta idazleak. Diskoan, hala nola, Lasarteren bertso eta prosa hautatu batzuk ageri dira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin argitaratu du bilduma Zubizarretak.

Derbian Aurrera garaile

Nafarroako Preferente Mailako eskualdeko derbia jokatu zen abenduaren 13an Arkiskil futbol-zelaian, eta leitzarrak 2-1 nagusitu ziren. Aurrerakoan golak Jabi eta Josebak sartu zituzten, horietako bat penaltiz.

ZJ
Zalain
jateetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin
Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

ttipi
ttapa

☎ (0034) 948 635458

J. RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen ditut

Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA

GOIZUETA

Hitzaldi ziklo interesgarria antolatu du Guraso Elkarateak

Hurrengo biak urtarrilaren 26an eta otsailaren 9an izanen dira

Esteban AROTZENA

Orokorrean herritar guztiei, baina bereziki gurasoei zuzendutakoa da Guraso Elkarateak, beste behin, aurtengo negu-udaberrirako antolatu duen sei hitzaldiko zikloa.

Aurreko Ttipi-Ttapan azaletik aipatu genuena sakonduz, esan, *Familia eta teknologia berriak* gaiaz hitz egin zuela Asun Zelaiak abenduaren 15ean, eta hiltzaren 26an eta otsailaren 9an, Ainhoa Saizek emanen dituela bi hitzaldi: lehenengoa, adin berdinekoen arteko kalitateko harremani buruz ariko da; eta bestean, adin gutxiakoen artean alkoholaren kontsumoak izan dezakeen eraginaz.

Martxoaren 9ko *Herriotza eta dolua* eta martxoaren 23ko *Mugak. Nork hartzen ditu erabakiak etxean?* gaietaz Amaia Vazquezek hitz egingen du. Martxoaren 30ean emanen zaio bu-

kaera zikloari *Irakurketarako motibazioa* izenburuko hitzaldiarekin.

Saio guztiak euskaraz eta ohiko ordutegian, 15:00etatik 16:30era, izanen dira.

Suhiltzaile bolondresak

Abenduaren 13an Ekaitza mendian galdutako iruindarren erreskatean erabakio-

rra izan zen herriko suhiltzaile bolondresak egindako lana. Eguraldi, gau eta paraje beldurgarriekin izutu gabe ekin zioten lanari, Artikutzan bi mendizaleak aurkitu zituzten arte. Bat hilda, zoritxarrez. Hau horrela izanda ere, Nafarroako Gobernuako funtzionarioen eta Guardia Zibilen lana gorraipatu zen biharamu-

neko komunikabideetan.

Baialtzinikin...

ANVren ilegalizazioa salatzen zuen mozioa ahobatez onartu zuela Udalak? Espainiako auzitegiek legez kanpo utzitako partiduan aurkeztu ziren alkatea eta hiru zinegotzietz gain, Elkartasunako bi zinegotzi zeuden plenoan.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Elkartasun bidaia Iñigo Elizegirengana

35 herritarren babesa jaso zuen Iñigo Elizegik abenduaren 9tik 17ra Parisen egin zioten epaiketan.



PERTSONAIA

Ainhoa ZABALETA

'Idatzi udako zure kanta' sariketako irabazlea

Alkoholaz hainbat gauza kontatu ditza- ket/Historio onak baina txar asko baita ere/ Soluzio ona dela ez zauzuela uste/ Edo- noren bizitza izorratu dezake. Hala hasten da Ainhoa Zabaleta Iribarren goizuetar gaztearen kanta saritua. Droga Mendekotasunaren Aurkako Planaren barne, Idatzi udako zure kanta! sariketa antolatu zuen Nafarroako Gobernuak udan, gazteek jaietan alkohola modu arduratsuan kontsumi dezaten. Azaro hondarrean banatu ziren sariak eta lehia- ketara aurkeztutako guztien artean, lehen saria Ainhoarentzat izan zen: 16 GBko mp4 bat. Hesian taldearen doinua aukeratu zuen eta horrekin sei estrofako abestia osatu zuen. Horetan azkena honela da: Dibertitzeko orain modu asko baitago/Alkoholaz ahaztu eta dantza ezazu gehiago/Guztiak izan behar dugu heldu- go/Behin probatuz gero zaila baita uzteko!!!

Plakodur
Eskaiola eta Pladurra

Eskaiola edo pladurrez eginiko mota guztietako lanak

Sabaia • Paretak • Altzarria • Isolamenduak
Suaren kontrako babesa

info@plakodur.com • 943 008 544
www.plakodur.com

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 625 474

Pitti
eskabazloak

Tel: 616 513 491

Mendialdea etxea, 34 ZUBIETA

deskontuak

DENDA HAUETAN EROSTEAGATIK

ZALAIN MOTOR

ZALAIN MOTOR tailerra • **BERA**
%5eko deskontua errekanbioetan

FOTO-ARGAZKIAK GOIKO

GOIKO argazki-denda • **BERA**
%10eko deskontua kopia digitaletan

bixkiak

BIXKIAK arropa-denda • **LESAKA**
%10eko deskontua

MASTER

ALTZURI

ALTZURI etxetresnak • **LESAKA**
%5eko deskontua etxetresnetan

POTTOKI

POTTOKI haurren denda • **ELIZONDO**
%5 oparitzeko artikulu ttikitetan

JAIONE

JAIONE tindategia • **DONEZTEBE**
%10eko deskontua, 12€tik gorako gastuan

SARIDUNAK:

- 1 Eguberri kantak CDa (Fermin music):
Saioa Mixelena (BERA)
- 2 Martiko produktuen lotea:
Juana M^a Arburua (ETXALAR)
- 3 Donostiako Aquarium-erako
4 sarrera:
Izaskun Zubialde (ZUBIETA)
Amaia Arretxea (SUNBILLA)
- 4 Etxalarko Herriko Ostatuan
2 lagunendako afaria:
Maite Iturburu (ERRATZU)



GABONETAKO SASKIA

Eduarne Urroz (SUNBILLA)

ORAIN

www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



ttipi txartela rekin beti irabazten da!

6 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astelehenetik ostiralera
09:00-16:00

Tel. 948 63 54 58

1

DISKA
Eguberri kantak
Lote 1

ferminmusic.com

Nafarroako musika
Denda digitala, taldeak kontze
www.ferminmusic.com

2

3 LIBURU
Ero
Dioramak
Etzi
Lote 1

ekar
fundazioa
www.martiko.com

3

4 SARRERA
2 Lote

AQUARIUM
Dondostia-Donostia
www.aquariumss.com

4

**Pirritx, Porrotx
eta Mari Motos**
Mari Motos DVDa
Piratak CDa
Piratak posterra
3 pin
Lote 1

www.katxiporreta.com

GABONETAKO SASKIA

JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA**
eta zure **IZEN-DEITURA 5767**ra



SMS 1ekin DENA ZURETZAT



Zozketan parte hartzeko epea: abenduaren 22tik urtarrilaren 14ra. Irabazleen izenak urtarrilaren 22ko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kostea 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttiparen fitxategien gordeko dira aurrerantzean izanen diren eskaintzen berri emateko. Zuzenketa edo deuseztapenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.

BAZTAN

Elizondoko inauteriak asteburura aitzineratzea nahi dute hainbat herritarrek

Astetartezko ekitaldietan gero eta jende guttiagok parte hartzen duela diote

ttipi-ttapa

Baliteke, 2009ko Elizondoko inauteriak aitzineratzea. Hala proposatu zuten hainbat herritarrek joan den abenduaren 14an egindako Baztarrean. Lerro hauek idazterakoan ez genuen azken erabakiaren berririk, baina baliteke dagoeneko inauteriak noiz izanen diren zehaztuta izatea.

Aldaketa horren giblean, aitzineko aldie-tan jendearen parte-hartzeak izan duen gainbera dago. Astelehena eta asteartearekin ospatzen diren ekitaldiak ortziral eta larunbatera aldatzea proposatu zuten bildutako herritarrek, jende gehiago erakartzeko. Gazteak izan ziren proposamen berria eraman zutenak, eta astelehenean egin ohi den haurren moztaroen desfilea ortziralera pasatzea

eta astearteko helduena larunbatera aldatzearen alde agertu ziren.

Landa eremuko eskolen jardunaldia

Nafarroako Gobernuak landa eremuko eskolen bulegoa sortu du berriki, ikastetxe desberdinen beharrei erantzuteko. Nafarroako 72 herritako ikastetxe sartu dira hor, eta tartean daude Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdiko eskolak. Bulegoa lanean hasia da dagoeneko, eta landa eremuko lehenjardunaldia egin zuten Iruñean abenduaren lehen hamabortzaldian. Han izan ziren, Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdiko eskoletako koordinatzailea den Xabier Ballarena (Ornozko zuzendaria ere bada) eta Nora Salbotx Amaiurko eskolako zuzendaria. Hemengo



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko eskolako ikasleak Zahar Etxean

Gabonetako oporrak hartu aitzinetik urtero egiten duten bezala, aldi honetan ere, Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxeko seigarren mailako ikasleak bisitan joan ziren Zahar Etxera. Eguberrietako kantak abes-tu zizkieten adinekoei eta hauek gusto handiz entzun zituzten abestiak.

esperientzia kontatzeaz gain, landa eremuko eskoletan aditua den Barzelonako unibertsitateko Roser Boixen azalpenak entzun zituzten.

Elizondoko zergak beheiti

Bizitza garestitu bada ere, Elizondoko herriak ez ditu bere kuotak igoko. Abenduaren 14ko Baztarrean horrela planteatu zen, eta beraz, auzolaneko urteko kuota 38 eurokoa izanen litzateke eta hilerria mantentzeko kuota 18koa. Dena den, urtarrilaren 6an eginen den Baztarrean adostuko dute behin betiko. Bertzalde, aipatu, herrian egin diren obretan 29.778 euro gas-

tatu direla 2008an. Diru horrekin bideak hobetu, hilerriko lanak egin, kanposantuaren plano egin eta Elizako dorreko erloju zaharberri dira.

Jaiotzen erakusketa Donostian

Azken urteotan, munduko Jaiotzak Bozaten paratu izan dituzte ikusgai Xabier Santxotena eta Teresa Lafraguak senar-emazteek. Aurten, ordea, erakusketa Donostiara eraman dute. Akuarioak ehun urte bete dituela-eta, han paratzeko gonbitea jaso zuen Santxotena eta hantxe dago abenduaren 12az goerotik. Urtarrilaren 12a bitarte ikusgai egonen di-

ra 60 herrialdeetako 191 Jaiotzak.

Mendizale ugari Saioan erreskatatuak

Denbora laburrean hainbat izan dira Lari-dietako Zerbitzuek Saioan erreskatatu behar izan dituzten mendizaleak. Urte akaberan, erraterako, lau eguneko tartean bi lagun erreskatatu behar izan zituzten. Azaroaren hondar-rean ere bertze lau lagunek galdu zuten orientazioa Saioan. Guztietan eguraldi txarra izan da mendizaleei orientazioa galduarazi diena, eta Gobernuak kontu handiz ibiltzeko gomendatu du.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 · 948 581 853

POTTOKI

Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astelehene-tik
larunbatera:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDZUBI

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

BAZTAN

Urtarril akaberan mediku gehiago etorriko direla agindu du Osansubideak

Hala, Charo Elcuaz zuzendariak abenduan aurkeztutako dimisioa gibelera bota du

ttipi-ttapa

Hasieran bertzelakoa iragarri arren, azkenean bere postuan segituko du Charo Elcuaz Baztango Lehen Mailako Arreta zerbitzuko zuzendariak. Egoera ez da batere xamurra, ez medikuentzat eta ez herritarrentzat ere. Medikuen zerbitzua behar bezala bermatzeko gabeziak daude eta horren harira, aitzineratu zuen Baztango zuzendariak urte akaberan kargua utziko zuela, «*osasan zerbitzua antolatzea ezinezkoa*» zitzaiolako. Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari abenduaren 11n jakinarazi zion.

Zerbitzua egituratzeko gabeziak goizeko kontsultetan eta guardietan daudela azpimarratu zuen Elcuazek bere dimisioan. Baina Lehen Arreta Zerbitzuko Zuzendariordetzarekin hitz egin ondoren, dimisioa bertan behera uztea erabaki du. Charok

ttipi-ttapari adierazi dienez, «*langilerik ez dagoela adierazi digute*

Osasun Sailan, eta hila-bete eta erdiz, ahal den neurrian segitzeko es-

katu digute. Momentuz ez dute planteatu Baztango egitura aldatzea.».



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Anizko esnea Iruñerrian

Anizko Jauregiko esnea Iruñaldean eskuratzeko aukera dago joan den hilabeteaz geroztik, Atarrabian pasteurizatutako esnea ematen duen makina paratu baitute. Jauregiakoen asmoa Iruñean jartzea zen, baina udal araudiak enbasaturik ez dauden produktuak saltzea debekatzen duenez, Atarrabiako Ezkaba gasolindegian paratu dute. Gisa honetara, Azkarate-tarrek dituzten 35 behien produkzio osoa merkaturatzea lortu dute. Aurtengo abuztuan, Italia eta Suitzan ikusitako ereduak segituz, eguneko esnea ematen duen makina paratu zuten Elizondon, estatu osoan jarri zen lehenbizikoa. Arrakasta haundia izan du eta egunero 150 bat litro saltzen dituzte eta aste hondarretan makinako esnea akautu egiten da. Horregatik, bigarren makina jartzera ausartu dira. Elizondoko makinak 280 litroko depositua dauka eta Atarrabiakoak halako bi.

SEI MEDIKUREN HUTSUNEAN GUARDIAN

Arazoa ez da oraingoa, medikuek urteak baitaramazkitez lan baldintza hobek eskatuz. Baztanen kasuan, guardia zerbitzuan behar diren sei medikuen postuak hutsik daude, eta horrez gain, goizeko zerbitzuan aritzen den mediku bat bajaran dago. Lehen Mailako Arreta zerbitzuko Zuzendariordetza behin eta berriz eskatu diote arazoa konpontzeko baina zain egon beharko dute.

Oraingoz, Osansubideak ezin omen du gehiago egin. «*Urtarril akaberan edo otsail hasierarako mediku gehiago etorriko direla agindu digute eta hala bada, espero dugu egoerak hobera egitea*», dio Elcuazek. Birtartean, «*daukagunarekin moldatu beharko dugu*». Gaineratu digunez, tarte horretan gaixoez zerbitzuen murrizketak izanen dituzte, baina «*baztandarrek izanen dute horren berri*».

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatuak

Tfnua.: 948 581 468
Mug.: 630 354 818

Santiago, 59 2C
ELIZONDO

SOULE
hileta artea

Tfnua. 948 453 444
Mug. 629 659 583
ARIZKUN

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

Larkilanak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO • Santiago, 54 behe • 948 581 831
BERA • Eztegarra, 8 behe • 948 625 232

HERRIKO ETXEBE EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Maixan eta Véronique

SARA

MENDIALDE
Jatetxea

T: 948 453 060
N-121-B, 66. km
AMAIUR

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

29 farola berri paratu ditu Udalak 74.000 euroko aurrekontuarekin

Elizargietetan, Axkoako bidean eta Azketa aldean jarri dira

Margari eta Koro

Heria haunditzen ari zaigula-eta, horren ondorioz, argiteria publikoaren sarea ere zabaldu behar izan du Zugarramurdiko Herriko Etxeak. Denetara 29 farola berri paratu dira toki hauetan banatuta: Elizargietetan, Axkoako bidean eta Azketako eremuan.

Lan hauen gastua 74.262,97 eurokoa izan da, baina herriari 56.122,97ko dirulaguntza jaso du.

Dantza ikastaroa Urdazubian

Urdazubiko Ugarana Emakume Taldeak antolatutako dantza ikastaldi bat ekainiko da. Erritmo aunitzetako dantzak izanen dira: modernoa, afrikarra, arabiarra, hindua, tibetarra... Eta horrekin batera, gimnasia eta egokitzen fisioa ere eginen dira.

Klaseak astearte arratsetan emanen dira (19:30etik 20:30era) eta urtarrilean hasi eta maiatzean akituko dira. Izena lehenbailehen eman behar da telefono honetara deituta: 948 599027.

Zugarramurdi 'Urteko Egutegian'

Beharbada zuetariko batzuek jakinen duzue ETB2k eskaini duen *El calendario del año* programan Agoizko Dantzari Taldeak parte hartu zuela. Gauza da programa hori bertanbehera gelditu zela, eta Agoizko dantzari egutegia erdizka gelditu zitzaizela. Hala ere, dantzari hauek ez dute etsi, eta abenduaren 10ean Zugarramurdiko leizeetan egon ziren falta zitzaizkien azkeneko argazkiak egiteko. Eguraldi hotza eta tristea izanik ere, erdi biluzik,



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Etxe berri andana egin da azken urteotan eta horrek farola gehiagoren beharra sortu du.

argazki ederrak egin zituzten leize ttikian eta erreka bazterrean. Egutegi honen 3.000 ale jarriko dira salgai eta liburudendetan ez ezik, helbide honetan ere eros daitezke: www.angiluerreka.org. Ateratzen den dirua Euskal Dantzarien Biltzarrerako izanen da.

ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI
Argazki ikusgarriekin osatu dute urte berriko egutegia Agoizko Dantzari Taldeko kideek. Irudi honetan ageri dena da horietako bat, Zugarramurdiko leizeetan ateratakoa.



ZAGYA
EHIZA ETA ARRANTZA
Baztanberri plaza 2 Elizondo
948452039 686904427

Īnaki Alzuiet margoak
Pintura dekoratiboa eta industrialia • Dekorazioa: estukoak, beladurak
Fatzadak • Barmaldekak
Lakatu eta barnizatuak kabinan • Pladura
Hari eta egurra arendoreekin garbitzen da
Tel.: 659 862 417 • Itur-ttipi etxea - Landibar Auzoa • 31711 URDAZUBI
pinturas.alzuiet@yahoo.es

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

SARA

Denboraldi hasiera zaila izan da herriko eskubaloiei eta errugbiko taldeentzat

Bertzalde, laster abiatuko da Herriko Etxeko Edantegiko Mus Txapelketa

Xan HARRIAGUE

Eskubaloiko eta errugbiko talde nagusiei kosta zaie sasoinan sartzea. Lehen partidak galdu egin dituzte, baina udazkena arribatu denean, garaipen batzuk eskuratu dituzte, baita puntuak ere. Hilbeltz hasiera huntan joaneko partida guziak jokatu dituzte, eta bertze hainbertze gelditzen zaizkie egiteko. Baina nahiz eta sailkapenean gibelesko postuetan egon, haien maila hobetu dute, eta pentsa daiteke errugbian zein eskubaloian maila atxikitzeko gai izan direla.

Ez da, aldiz, titulu bat irabazteko urtea izanen. Errugbiko taldeari dagokionez, gaztea da, eta jokatzeko tenorean esperientzia falta sumatzen zaio, baina lanean segitzen badu, talde ona aterako da heldu den urteetarako.

Herriko Etxeko Edantegiko Mus Txapelketa

Negurekin batera musean aritzeko momentua etorri da, eta urte guziz bezala, Herriko Etxeko Edantegiko Mus Txapelketa laster hasiko da. Usaian bezala, parte hartu nahi



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sarako Izarra errugbi taldean jokalariei aintz bildu dira aurten ere.

dutenean izena eman beharko dute ostatuan.

Joko Berri txapelketa

Sarako Izarra pilota taldeak antolatzen duen Joko Berri txapelketa hilabete huren 15ean hasiko da. Aitzineko urteetan bezala, lau maila izanen ditu, eta partidak asteguneko arratsetan, eta asteburuko goizetan jokatu dira kiroldegian.

Abonamenduak berritzea

Ttipi-Ttapako urteko abonamenduak hilabete honen bukaer



UTZITAKO ARGAZKIA

Errugbiko lehen taldea Landeetan jokatuako partida batean.

ra baino lehen berritu beharko dira. Beraz, idizkaria hartu duten guziek, haien izena, deitura, helbidea,

telefono zenbakia eta 54 euroko txeki bat utzi beharko dituzte Herriko Etxeko Edantegian.

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

SENPERE

'Uzkinazo luma' testu bilduma plazaratu du Peio Jorajuria kazetari senperrar-bidarraitarrak

2006tik euskaltzain urgazlea da Herria astekarian idazten duen lapurtarra

Franck DOLOSOR

Peio Jorajuria *Bernatenea* (Hergarai-1955) kazetariak bere bigarren liburua plazaratu du berriki: *Uzkinazo luma*. Liburu huntako testu gehienak duela bi hamarkada idatzi zituen, bortz urtez egon zelarik etxean haurrak zaintzen eta hezten. Orduan jendea harritu zen gizon batek deliberratzea etxean egotea. Ongi pentsatuta urte onenak izan zirela segur da aspalditik Bidarrain laketu den senperrarra. «Urrezko urteak izan zirela», dio. Peio Jorajuria bi seme alabaren aita da eta haiei buruzko testuak idazten hasi zen. Gero

gaiak zabaldu zituen hurbilekoen heriotza edo GALen garaia aipatuz. Olerkiak, kondairak eta bertsuak, denetatik izkiritzen du Jorajuriak. Liburuan ez du deus sailkatu, biziaren denetatik baitago dena nahasirik bat bertzearen ondoan.

BAIONAN ETA DURANGON AURKEZPENA

Bigarren lan hau Baionan eta Durangoko euskal liburu eta disko azokan aurkeztu du Peio Jorajuriak. Bizkaiko azoka itogarria bezain baitezpadakoa dela uste du. Sarako Idazleen Biltzerra ez bezala, Durangon zaila da luma gizon eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Peio Jorajuria idazlea lagun artean, bere liburu berria mahai gainean duela.

andereekin lasaiki mintzatzea. Dena den, biziki polita izan zen bertan aurkeztea lan berria. Jorajuriak gogoan du, bertzeak bertze, bere ondoren Xabier Lete sinatzen aritu zela haren azken liburua...

SENPERTARRA SORTZEZ

Peio Jorajuriak ez du ukatzen senperrarra denik, baina aspalditik gantzen herriatik Bidarrain ezkontzeko. Geroztik Baxe-Nafarroan finkatu eta laketu da. Ainitz maite du Bidarraiko mendigune hau, Senpere baino ai-

nitz tikiagoa eta sanoagoa omen baita bere hitzetan. Kostaldeak ez du oraino kutsatu. Gazteagoa zelarik ere denboraldi luzeak herriatik kanpo pasa zituen ikasketak egiteko, Uztaritzen eta Baionan, lehenik, eta gero kooperazioa egiteko Afrikan, bertzeak bertze. Halere, Senpererekin harreman hertsia du, haurride batzuk han bizi bizi zaizkio oraino.

HERRIAN ASTEKARIAN LANEAN

Azken urteetan, Herria astekari euskaldune-

ko idazleburua da. Kondu lanak egiten hasi zen Herrian, eta orain kazetaritza lerratu da, gusturat, biziki maite baititu Euskal Herriko berriak, berri xeheak, eguneroko gaiak, jendeenganik hurbil diren gauzak. Papera eta luma eskutan pozik dago. Azken garaietan nahi baino denbora gutiago du gogoan dituenak idazteko. *Uzkinazo luma* plazaraturik Maiatz Baionako argitaletxearekin, orain ez du baztertzeko Bidarrain buruz bigarren liburua osatzea herriko artxiboak aztertutakoan.

suteia
INSTALAZIOAK

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailua instalatzen dizugu

Maderas

GOMEN

Tel: 948 580 645
Zaldubia Industrialdea
IRURITA



- Era guzietako atekak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

MONTXO OSTATVA



Dantxarinetatik
2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA · VRDAZVBI

Egunero irekia 10:30etik 02:30era



EZKONTZAK

Felix Mena Barberena eta **Ana M^a Calavias Zelaieta**, Elizondokoa eta Iruñekoa, azaroaren 22an Elizondon.
Arturo Colmenero Quesada eta **Itziar Malagon Rodriguez**, Elizondokoak, abenduaren 12an, Elizondon.
Juan Jose Dagerre Mitxelena eta **Ana Belen Ramirez Etxandi**, Erratzukoak, abenduaren 13an Elizondon.



SORTZEAK

Mikel Lazkanotegi Sansiñena, Berakoa, azaroaren 30ean.
Bruno Moncalvillo Gartzia, Berakoa, abenduaren 13an.
Gaizka Santos Luzuriaga, Doneztebekoa, abenduaren 12an.
Beñat Etxepare Aiestaran, Lesakakoa, abenduaren 8an.
Alazne Maisterrena Mendiburu, Elizondokoa, abenduaren 10ean.
Ander Telletxea Diaz, Elizondokoa, abenduaren 10ean.
Aña Leizagoien, Sarakoa, azaroaren 28an.
Amelia Etxegarai, Sarakoa, azaroaren 18an.
Mañu Behotegi, Sarakoa, azaroaren 11n.



HERIOTZAK

Jose Badiola Badiola, Donamariakoa, abenduaren 12an, 86 urte.
Pablo Gonzalez Miguel, Lesakan, abenduaren 13an, 78 urte.
Pepita Etxeberria Mikelarena, Lesakan, abenduaren 15ean, 95 urte.
Fidela Andresa Goñi Istilart, Elizondokoa, abenduaren 16an, 91 urte.
Philippe de Miolis, Sarakoa, abenduaren 3an.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
 Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
 BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
 IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
 ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
 SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
 SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
 FUNERARIA BAZTAN
 TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
 LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
 LESAKAKO TANATORIOA

AMAIUR

Sokatira taldea indarrez bueltatu da goma gainera. Neskek, bere lehen agerpenean, Nafarroako 4x4 txapelketa irabazi zuten. Mutilek zortzinakako bi txapelak jantzi dituzte 600 eta 640 kiloko kategorietan.



Noelia Ariztia.

ARIZTIA, Noelia

Erreterian jokaturako 23 urtez azpikoen Espainiako txapelketako lparaldeko sektorean txapeldun gelditu zen, 63 kiloko kategorian. Apirilaren 26an eta 27an jokaturako Espainiako txapelketan bigarren izan zen. Horrek selezioan sartzeko eta nazioartean lehiatzeko aukera eman dio.



Josu Baleztena, eskutik erremontera.

BALEZTENA, Josu

Sei urte eta erdiz eskuz profesional bezala aritu ondotik, erremonteran debuta egin zuen otsailaren 24an. Eskuz aurrelari eta erremonteran atzelari da eratsundarra.

BAZTAN

20 urte bete ditu BKT eskubaloia klubak. Emakumezkoek Lehen Maila Nazionalen jokatu eta Ohorezko mailara igotzeko promozioa jokatu zuten, baina ez zuten lortu. Gaur egun ehun neska baino gehiago ari dira eskubaloian Elizondon.

Baztan Rugby Taldeak, berriz, 30 urte bete ditu. 1978an sortu zen eta horren harira, egun berezia antolatuta zuten irailaren 13an Lekarozen. Futboleant, talde nagusia Preferentera bueltatu da Giltxaurdin belar artifiziala estreinatu duten urtean.

BENGOETXEA, Oinatz Leitzako aurrelariak parean tokatu zitzaizkion arerio guztiak menperatu zituen eta ustekabean buruz buruko txapel handia jantzi zuen. Ekainaren 15eko finalean, 22 eta 11 irabazi zion Abel Barriola herritarri. Lehen aldiz, Nafarroako herri bereko bi pilotariren arteko finala jokatu zen.

BEREAU, Iñaki

Euskal Herriko lasto altxatze txapelketa irabazi zuen kirolari igantziarrak sorterrian irailaren 27an. Podiumeko hiru koxkak igantziarrek bete zituzten. Nafarroako eta Zazpi Herrialde-takoan ere nagusitu da aurten Iñaki Bereau.



Iñaki Bereau igantziarra, Nafarroako eta Euskal Herriko txapeldun izan da lasto altxatzen.



Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriola, buruz buruko finala jokatu baino lehen.

BERTIZ, Unai

Nafarroako harrijasotze txapelketa irabazi zuen sunbildarrak, Iruñeko Sanferminetan. 5.812,5 kilo jaso zituen denera, Josetxo Urrutia leitzarrrak baino 100 gehiago.

BETI GAZTE

Emakumezkoen sokatira taldeak lehen aldiz zortzinakako Nafarroako txapelketa irabazi zuen. Azken saioa azaroaren 29an herrian jokatuta lortu zuten txapela. Irailean, Begibana txapelketan ere nagusitu ziren.

DONEZTEBE

Laxoa taldeak hamazazpigarren aldiz irabazi du Baztan-Errekako txapelketa. Abuztuaren 3an Bear-Zanan jokaturako final ikusgarrian 9-8 irabazi zion Irurita Bri. Felipe Ganboak jaso zuen pilotari onenaren saria.



Xabier Elizalde.

ELIZALDE, Xabier

Martxoaren 16an Garferekin debuta egin zuen profesionaletan 23 urteko atzelari iturendarrak, Briviescan, Burgozen. Xabier Alzugarai almandoztarrarekin batera 22-17 irabazi zieten Capellan II.a eta Aitor Elkorori.



Ander Erasun.


ERASUN, Ander

Urte ederra Aurtizko aizkolariarena. Apirilaren 6an 20 kanaerdiko moztu zituen Doneztebeko pilotalekuan, marka personala eginez (52 minutu eta 49 segundo). 18 urtez beheitikoetan Urrezko Aizkora iraba-



zi zuen eta Euskal Herriko gazte mailakoa. Euskal Herriko hirugarren mailakoan azpitxapeldun izanik, heldu den urtean bigarren mailan ariko da. Nafarroan berriz, bigarren mailako finala irabazi zuen Doneztebeko ferietan eta lehen mailan ariko da heldu den urtean.

ETXEGARAI, Fernando Hau ere ez da makal ibili. Bigarren izan da Euskadiko Mendi Maratoi txapelketan, eta garai leher atera da Sarako Korrika Trail Lasterketan, Berako Mendi Maratoi Erdian, Camille Extremen, Sarako Kontrabandisten Lasterketan. Egun berean, irailaren 27an, Mendi lasterketako Euskadiko Kopa jantzi zuen goizean Olazagutian eta Nafarroako koxkor biltze txapel-



Fernando Etxegarai Camille Extremen.

08ko kirol indegia



Joseba Larralde

keta arratsaldean Igantzin.

LARRALDE, Joseba Berako txirrindulari afizionatuak Euskadiko elite eta 23 urtez behetiko txapelketa eta 23 urtez behetiko Nafarroako txapelketa irabazi zituen afizionatu mailan. Bidasoako Itzulian zazpigarren eta lehen euskalduna izan zen. Heldu den denboraldian profesionaletan debuta eginen du Orbea-Oreka taldean.

LARRETXEATARRAK Donato Larretxeak Aitzol Atutxarekin elite mailan eta Garikoitz eta Oihan Larretxea lehen-gusuek gazteetan irabazi zuten Binakako Urrezko Aizkora, martxoaren 1ean Azpeitian jokatuako finaletan. Oihanek hirugarren mailako Euskal Herriko txapelketa irabazi zuen irai-

laren 7an Oitzen eta Patxi eta Donatok, Gure Kirolen Kluba sortu duzte Oronoz-Mugairin.

LIZASO, Iñaki

Doneztebeko erre-montelariak lehen aldiz jantzi du binakako Faustino Torneoko txapela, Urrizarekin eta horrekin, orain arteko palmares bikaina osatzea lortu du. Xanti Uterga herritararekin Master Pacharan Baines txapelketa irabazi zuen.

LOUAJARI, Abdelfetah

1982 urteaz geroztik Peio Garinek zuen marka 12 segundotan hobetu zuen Ardoi taldeko korrikalari marokorrek Berako Lizuniagako Igoeran. 16 minutu eta segundo bat behar izan zituen proba osatzeko.

MARIEZKURRENA, Javier Istripu baten ondorioz zenbait karreratan parte hartzerik izan ez bazu ere, Espainiako txapelketan bigarren postua lortuz akitu du denboraldia Doneztebeko Ederki eskuderiako kamioi gidariak. Europako txapelketan hamalagarren izan zen.

MENDI BIZIKLETA

Asier Apezetxea aranztarra eta Beñat Txoperena eta Aitor Begino igantziarrak Nafarroako txapeldun suertatu dira mendi bizikletan, elite, junior eta kadete mailetan, hurrenez hurren. Aitor Beginok Euskadiko Open Spiuk ere irabazi zuen bere ka-

tegorian. Beñat Txoperena errepidean hasi zen gero eta Gipuzkoako Itzulia irabazi zuen.



Mikel Mindegia.

MINDEGIA, Mikel

Errege egunak opari berezia ekarri zien aizkora zaleei. Mindegia handiak, 58 urterekin, lau kanako moztuta marka pertsonala egin zuen Donezteben. Ordubate, minutu bat eta 49 segundo eman zituen lanak akitzeko.

MINDEGIA, Txomin

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari emandako Zilarrezko Domina eskuratu zuen, Doneztebeko Erreka elkartean 25 urtez egindako lanari emandako saria. Lan horren fruituaren bila Asobal ligan ari dira, Niko Mindegia eta Ibai Meoki.

MITXELENA, Beñat

Euskal Herriko klub arteko buruz buruko txapelketa irabazi zuen Gure Txokoarekin eta Elgoibarko eta Lizarrako txapelak ere jantzi zituen atzelari aranztarak. Gero, apirilaren



Aitor Begino, Asier Apezetxea eta Beñat Txoperena, Nafarroako txapeldun mendi bizikletan.



Beñat Mitxelena.



Aimar Olaizola.

11n, sorterrian debutatu zuen Frontisekin.

OLAIZOLA, Aimar

Falta zitzaion txapela, eskuz binakakoa, jantzi zuen Mendizabal II.aren bikote eginez martxoaren 31n Ogetan. 22-17 irabazi zieten Titin III.a eta Laskuraini. Abenduaren 8an, emaitza berarekin irabazi zion Irujori lau t'erdiko finalean. Laugarren txapela du goizuetarrak modalitate honetan, Retegiren marka berdinduz. Guzira 7 txapel ditu, oraindik jokatzen duten pilotarien artean gehien duena.

PETIRENA, Joseba

Nafarroako txapeldun izan da orga jokoan beratarra. Iruñeko Sanferminetan jokatuako saioan 7 itzuli eta 1,85 metro egin zituen. Bigarren Igor Lasaga herritarra izan zen.

PERURENA, Inaxio

230 kiloko harria esku bakarrarekin berdindu zuen otsailaren 10ean. Bere aitak bakarrik dauka marka hobea esku bakarrarekin, 267 kilo.

SEIN, Xabi

Nafarroako ingude altxatze txapelketa irabazi zuen Iruñeko Sanferminetan.

TXINGA

Nafarroako eta Euskal Herriko txinga eramate txapelketak irabazi dituzte Migel Angel Sukuntza leitzarrak eta Esther Iriarte narbartarrak. Nafarroako marka ere egin zuen Iriartek, 30 plazarekin.

URRUTIA, Migel Mari

Buruz buruko Casino Kursaal txapelketa irabazi zuen erre-montelari saldiastarrak, irailaren 6ko finalean Zeberio II.a 29 eta 35 menperatuta. Hilabete beranduago herritarren omenaldia jaso zuen.

ZELAIETA, Genaro

Donostiako Real Sociedad taldearekin bi liga eta Superkopa irabazi zituen futbolari beratarra otsailaren 7an hil zen, 53 urte zituela. Ekainaren 14ko Berako Kirol Egunean omenaldia eskaini zioten Gure Txokoa, Erreala eta Osasunako beterranoen taldeek.



Genaro Zelaieta.

AGENDA

egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

FILMAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 2an, *Sky stream* diapositiba emanaldia Arizkunenean, 20:00etan.
Urtarrilaren 2an, *Hiru mosketariak* filmea Lur aretoan, 17:00etan.

ARANTZA

Urtarrilaren 2an, pilotari buruzko bideo emanaldia, 22:00etan Zahar Txokon.

ERAKUSKETA

ELIZONDO

Urtarrilaren 9ra, Belen Arevaloren margo erakusketa, *U+2640 en femenino* izenekoa. Astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara.

URDAZUBI

Egunero, Euskal Herriko egungo margo erakusketa. 11:00-20:00 Monastegian.

SOLASALDIK

ELIZONDO

Urtarrilaren 16an, *Euskal Herriko paisaiak* gaiari buruzko solasaldia, Jakoba Errekondorekin. 19:30ean Museo Etnografikoan.

GOIZUETA

Urtarrilaren 26an, adin berdinekoen arteko kalitateko harremanei buruzko hitzaldia. 15:30etik 16:00etara eskolan.

IKASTAROK

URDAZUBI

Urtarriletik maiatzera, dantza ikastaroa. Astearterko 19:30etik 20:30era. Izena emateko lehenbailehen deitu 948 599027 telefonora. Xehetasun gehiago 24. orrialdean.

TELEBISTAKO TXOKOA



Errege Kabalgatak ikusgai ttipi-ttapa telebistan

URTE BERRIARI EGIN DIO TELEBISTAK

2008a agurtu eta 2009ari ekin dio **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK**. Aldizkari honetako erreportajea irakurriko zenutenez, aurten aldaketa sakonak izanen dira **TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN** programazioan baina aitzinerago emanen dugu horren berri. Momentu honetan, gainera digunak Errege Kabalgatak dira eta horiei begira dago **TTIPI-TTAPA TELEBISTA**. Eskualdeko herri gehienetan hiru Erregeen bisita izanen da heldu den astelehenean, urtarrilak 5, eta **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** horren berri emanen du. Arantza, Bera, Igantzi, Lesaka, Sunbilla, Doneztebe, Leitza... Horietan eta bertze auni-

ztetan ibiliko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar.

ORNOZ-MUGAIRIKO SUHILTZAILERIKIN TERTULIAN ORTZIRAL HONETAN Erregeen bisita ailegatu aitzin, bertzelako programazioa izanen da **TTIPI-TTAPA TELEBISTAN** ikusgai. Ortziral honetan, erraterako, urtarriak 2, Oronoz-Mugairiko suhiltzailei buruzko erreportajea eskainiko da. 28 suhiltzaile daude gaur egun Oronozko parkean eta horietako bik, Pello Berrok eta Iñigo Orejak, euren eguneroko lana nolakoa den azalduko digute. Hori eta bertze hainbertze **TTIPI-TTAPA TELEBISTAN**.

DISKAK



Itsas ulu zolia
BENITO LERTXUNDI
ELKAR, 2008

Bere hamabortzgarren diska kaleratu du Orioko kantari haundiak: *Itsas ulu zolia*. Benito Lertxundik (Orio, 1942) berezkoa duen sentikortasun horrekin osatu du 10 abestiko lana. Lan haundia egin du, gozotasunez abestuz. Bederatzi gai berri eta bertze bertso bat hautatu ditu, *Kantuz*, XIX. mende akaberan Jose Mendiague poetak konposatutako adierazpena. Hori da diska honetako lehen kanta. Gainerakoan, musika, hitzak, metaforak, barneideiak, espazioaren argitasuna, bat-batekoaren indarra... Horiek guztiak landu ditu *Itsas ulu zolia* argitalpenean. Benito Lertxundik 1965ean kantua sari bat irabazi zuenean ekin zion jendaurrean kantatzeari. 1968an bi diska tiki argitaratu zituen, eta geroztik, bertze 15 egin ditu. Jendearen erantzuna erabatekoa izan da.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA** (abendua 5etik 12ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 33,00 € (+5,00)

Zerri gizena
1,032€ kilo. (=)

Zerramak:
0,500€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,07 (=)

1.koa 3,77 (=)

2.koa 3,07 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,17 (=)

1.koa 3,87 (=)

2.koa 3,19 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 130,00 (=)

idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,00/8,80

8-10 kilokoak: 6,60/7,00

JAKIN BEHARREKOAK

Bikote bat banantzean, nork ordaindu beharko du hipoteka?

Ahalik eta gastu guttien sortzen duten bideak aztertu behar dira

Egoera ekonomiko ez da batera ona, eta are gehiago bikote bat banantzea erabakitzen badu horrek gastu haundiak eragin ditzake. Gauregun, ordea, etxebizitza bat erosi edo egiteagatik hipoteka duten bikoteak ez dira gutti eta banantzera badoaz, nork ordainduko du hipoteka? Dauden aukerak aztertzea komeni da deus erabaki aitzinetik. Consumer aldizkariak hainbat gomendio bildu ditu eta horietako batzuk jaso ditugu hemen:

JABETZA SALDU

Orain dela urte batzuk arte, bikotearen bizitokia saltzea izaten zen ohikoena, etxebizitza eta hipoteka bien izenean zeudela kontuan hartuz. Hartara, salmantan eskuratutako dirua bitan banatzen zuten, zati berdinetan. Horrek bi alde-



Hainbat eta hainbat familia dira etxebizitza ordaintzeko hipoteka eskatu eta orain horri aitzin ezin egin diotenak. Egoera konplexuagoan daude banatzen direnak.

ei euren bidea hartzeko aukera ematen zien.

Etxebizitza salduta, hipoteka hirugarren lagun baten gain joaten zen. Sarritan, gainera, salmenta errentagarria izan ohi zen eta bertze etxebizitza bat erosteko aukera izaten zuen banandutako bakoitzak. Baina orain zaila da halakorik egitea.

Etxebizitza merkatua hondoa jota dabil eta etxebizitza bat prezioa onean saltzea ia

ezinezkoa bihurtu da. Beraz, banatzen den bikoteak bertze aterabideak bilatu behar ditu.

BATEK BERTZEAREN ZATIA EROSI

Aterabide bat batek bertzearen zatia erostea izan daiteke. Saltzen duenak salmenta errentagarria izan dadin ahaleginduko da baina egoera konplikatu da. Tartean dagoen banketxeak eginahalakeginen ditu be-

zeroak etxebizitzaren balioa merketu dezan.

Bi aldeak akordio batera ailegatzen badira hobe. Hipoteka banandutako alde baten esku geldidateke, eta bere izenean jarri. Beti ere, bankuak hala onartzen badu. Gisa berean, lehendabiziko hipoteka ezeztatzen ahalegindu daiteke eta eskusibotasunez bertze hipoteka bat negoziatu banketxearekin.

LIBURUAK



Maradona. Barrilete kosmikoa

Xabier SILVEIRA

TXALAPARTA, 2008

Buenos Aires inguruko txabola auzo batean jaio eta aitzinako mendeko futbol jokalaririk onena izatera heldu da Diego Armando Maradona. Haurra zenetik mundua txunditu zuen futboleko jolasteko bere manerarekin. Argentina, Espainia eta Italiako taldeekin borts kontinenteetako futbol-zelaiak zeharkatu zituen eta Argentinako selekzioaren 10. zenbakia bizkarrean zuela historiari utzitako irudiek nazioarteko ikono bihurtu dute.

Horrez gain, Maradonaren bizitza pertsonaleko gorabeherak eta, bereziki, drogarekin izandako arazoak, bere legenda puztu dute. Hala bada, kirolari, abeslari, artista edo eta politikari ezagunek, zein gizabanako soilek sentitzen duten harenaganako mirespena egunez egun haunditu bertzerik ez da egin. Mirespen horren ondorio eta isla da Xabier Silveira lesakarrak idatzitako liburu hau: *Maradona. Barrilete kosmikoa*.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BERA

Urtarrilaren 18an, bortzgarren mugarriraino ateraldia antolatu du Larutiki Mendi Taldeak.

SUNBILLA

Urtarrilaren 4an, Mendaurrera mendi ateraldia antolatu du Ulibeltzak Mendi Elkartek. Irteera 8:00etan.

BAZTAN

Urtarrilaren 8an, Auza mendira ateraldia, Baztango Mendigoizaleak antolatuta. **Urtarrilaren 13an**, Urruxka mendira irteera antolatu du Baztango Mendigoizaleak taldeak.

LESAKA

Urtarrilaren 18an, San Antoneira mendi irteera antolatu du Beti Gaztek. 8:00etan Plaza Zaharretik abiatuko da.

ANTZERKIAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 24an, *Euskara sencilloaren manifestoa* antzezlanaz Arizkunenea Kultur Etxean.

BERA

Urtarrilaren 17an, *Que viene mi marido* antzezlanaz Kultur Etxean, 19:30ean. Ligli Trape Konpainiarekin.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 17an, Inpekables Napar-Mex taldearen kontzertua. 1:00etan Lur dantzalekuan.

LESAKA

Urtarrilaren 18an, Egan taldearen kontzertua Plaza Zaharrean, 18:00etan.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira. Eta argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €.
Ttipi-ttapa telebistan eta www.ttipi.neten ere agertuko da
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituko
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabekak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuko bere lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESKA. Bittiria plazan pisu mobleztatu eta berritua salgai. Sartzeko prest. 180.000 euro negoziatzeko. **650 405532.**

NARBARTE. 70m²ko etxebizitza salgai. Sartzeko prest. 162.000 euro. **687 111420.**

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

BERA. Apartamentua errentan emateko. Argitsua, berria eta mobleztatua. Bakarrik nahiz bikotean bizitzeko aproposa. **607 226795.**

BERA. Herri erdian 90m²ko pisu zaharberritua errentan emateko. **680 984353/ 948 6310489.**

BERA. Pisu mobleztatua errentan emateko. **948 630270 (eguerdi-arratsetan).**

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

ELIZONDO-ELBETE. Etxebizitza bat errentan hartuko nuke. **610 949168.**

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. **659 609678.**

LESKA. 53m²ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Antoiu 29, behesolairua. **679 432522.**

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

BERA. Bidasoa karrikan, Telefonicaren ondoan, garajea errentan emateko. **948 630465.**

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Mota guztietako **fruta-arrabolak** kimatzen dira. **666 283847.**

BURLATA-IRUÑA. Tayri kirasajista. Bizkarrezurreko ondoezak zuzentzen laguntzen dugu. 10 eguneko tratamendua 150 eurotan. Era guztietako gaixotasun eta arazo emozionalak artatzen dira loreekin. Oparitu osasun-bonoak=masajeak 9 egunetan. **647 156370.**

Eteko ileapaindegi zerbitzua. Ile-apaintzaile diplomatu, gizonezko, emakumezko eta haurrentzako. **647 810149 / 948 631282.**

LANA 301 Eskariak

Gizonezko bat **txofer** lantean ariko litzateke, kamioi astunekin edo trailerrekin. **687 149060.**

BERTIZ. Natur Parkeko Turismo Bulegoan langilea behar da. Urte osoko kontratua (2009a). Baldintzak: turismoko lanbide heziketa edo turismoan diplomatua; euskara eta behintzat atzerriko hizkuntza bat jakitea. Curriculum: Bertizko Natur Parke. 31720 Oihergi edo *ostaitz@yahoo.es*. Informa-

RENAULT **SANTESTEBAN Tailerrak**

Comptons Tolosa - Renault - Letakoa enpi. **DONZETEBE** - T. 948 450 282 F. 948 450 857 - donzetebe@red.ansul.es



SCENIC DYNAMIQUE 1.9 DCI 130cv
2007koa - 14.000 km



CLIO DYNAMIQUE 1.5 DCI 85cv
2008koa - 6.000 km



KANGOO COMBI 1.5 DCI 65cv
2007koa - 36.000 km



PEUGEOT 307 1.6 110cv
2006koa - 28.000 km

Clio III Emotion 1.5DCI 85cv,
Scenic Expression 1.5DCI 105cv,
Kangoo Grand Volumen 1.5DCI,
Kangoo 1.5DCI (ibiza),
Sedan Dynamique 1.5 DCI 105cv
Espase Emotion 2.0DCI 130cv 7 plazakoa,
Espase Privilege 2.0DCI 150cv 5 plazakoa.

zioa: **948 592421.**

MOTORRA

501 Salerosketak

Kawasaki ZZR 1.100 motorra salgai. Gupil berriak eta maletarekin. 45.800 km. SS-4911-AJ matrikuladuna. 2.000 euro. **646 769186.**

Seat Ibiza 1.400 autoa salgai. Gasolina. Egokia gida-baimena atera berri dutenentzat. 2003koa, parrotarekin eta haize egokituarekin. **699 279940.**

Scooterra salgai. Egoera onean. **948 634082.**

Gas-gas Enducross motorra salgai, 2,5. 2001ekoa. Egoera onean. Prezioa: 1.800 euro. **680 633497.**

Nissan Primera familia-rra 2.0 TD salgai. 2001ekoa. 125.000 km. Egoera onean. Prezioa: 5.500 euro. **616 216049.**

MOTORRA

502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • **DONEZTEBE**

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK

601 Emateko

Zakurkumeak oparitze-ko. Ama Golden Retriever arrazakoa eta aita ezezaguna. **948 453043.**

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Ahuntza enanoa bere umearrekin salgai. **616 860060.**

10-12 **artantxo** eta **antxu** erosiko nituzke. Mutur gorriak. **627 303696.**

Basurde ehizarako **zakurra** salgai. **670 563896.**

4 urteko **aharia** salgai. XXL neurrikoa. Mutur beltza, adar gabea. **618 962794.**

ANIMALIAK

604 Hartzeko

Artzain zakurkume bat hartuko genuke. **948 173515/ 646 338516.**

DENETARIK

701 Galdu-aurkituak

BERA. Ibardin inguruan setter arrazako bi zakur galdu dira. **626 888339.**

ETXALAR. USB memoria bat agertu da, ttipi-ttapa kontuan. **948 635458.**

DENETARIK

702 Salerosketak

2 sofa salgai: bat hiru plazakoa eta bertzea bi plazakoa. Egoera onean. **637 195856.**

t tipi
t tapa

26.000 iritzi, 26.000 lagun
26.000 aldiz eskertuta ere,
motz geldituko ginen

Ttapi-Ttapa
26000 irakurle

D. Navarra
14000 irakurle

Guaixe
12000 irakurle

D. Noticias
12000 irakurle

Gara
4000 irakurle

El Pais
2000

Berria
2000

El Mundo
1000

Marca
1000

Bertzeak
5000

liderrak
gure eskualdean

IRAKURLE KOPURUA

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Leitzako SAIOA TELLETXEA ZABALETAK 4 urte beteko ditu urtarriaren 13an. Zorionak eta muxu asko Ezkurra eta Leitzako familien partetik pottotta



Zorionak Iganztiko INIGO TXOPERENA SALDIASI. Abenduaren 28an 3 urte bete ditu. Iganztiko ataxki eta amatxi guzieren partetik.



Zorionak Iganztiko INIGO TXOPERENA SALDIAS mutiko polit honi. Muxu eder bat attatto, amatxo eta Nahiaren partetik. Maite zaitugu!



Zorionak sorgintxo! Zubietako NAIARA ANSOK urtarriaren 10ean 6 urte! Uf, zenbat! Segi dantzari! Zubietako familiaren eta bereziki Maria, Juliana eta Aneren partetik.



Zorionak MIKEL familia guztiaren partetik! Urtarriaren 11n urteak beteko ditu MIKEL SAN SEBASTIAN lesakarrak. Maite zaitugu eta etxean nahi zaitugu. Besarkada haundi bat eta mila musu. Eutsi goiarri!!!



Zorionak OSABA Maddi eta Liderekin partetik! Attaren opor luzeak iristen direnean berriro egonen gara elkarrekin. Bitartean, zaindu zaitze eta jaso gure besarkadarik beroena.



Zorionak VANESSA!!! Urtarriaren 1ean 10 urte beteko ditu. Ongi pasa Lesakako familiaren partetik. Muxu bat pottokita!



Eratsungo NAROA RETEGI ESKUDERO eratsundarrak laister urtea beteko du. Muxu bat pottoli Aurizko familiaren partetik.



NOELIA ALMANDOZ LUKANBIO aranztarrak abenduaren 25ean 8 urte bete ditu. Zorionak etxekoekin partetik, bereziki atxa, ama eta Sararen partetik. 8 muxu haundi!




Doneztebeko ANE LARRETXEA LUKANBIO abenduaren 28an 8 urte bete ditu. Zorionak! Arantzako familia eta bereziki atxa, ama eta Mikel. Orain bezala segi eskolan



Etxalarko LEIRE eta ANEK 15 urte bete dituzte abenduaren 15ean eta 20an. Zorionak euren lagunak diren Izaro, Miren, Itsaso eta Iruñeren partetik.



AINTZIRA eta MIGUELTXO lesakarrekin abenduaren 26an eta 27an 6 eta 36 urte bete dituzte. Joan pastela presatzen. Zorionak, muxu eta besarkada handi bat Lesakako senide guzieren partetik.




Eratsungo NAROA RETEGI ESKUDERO urtarriaren 18an urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik eta bereziki atxa eta amaren partetik.




Arantzako OSKIZ eta SUHARRI MADARIAGAK 3 urte bete dituzte abenduaren 29an. Auniz urtez eta muxu auniz Juani, Xanti eta Estitzuren partetik.




Abenduaren 22an gure amatxo BELENEN urteak bete ditu. Ez dakigu zenbat, baina hagitz martxosa da. Auniz urtez eta muxu pottolok zuretzako etxeko deabru ttikien partetik.



Auniz urtez! Ea afari goxo batera gonbidatzen gaituzun! Muxu haundi bat etxekoekin partetik.



ITXARO ZESTAU GOGORZAK 5 urte beteko ditu hilbeltzaren 7an. Zorionak Itxaro zure familiaren partetik.



ASIER JUANENEAK abenduaren 18an urteak beteko ditu. Zorionak polittinari! Muxuak familia guztiaren partetik.



Iganztiko ANARA BURGETEK urtarriaren 4an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat attatto, amatxo eta Saraitxoren partetik.

TTIPI-TTAPA Fundazioak

(aldizkaria • telebista • egunkari digitala)

ZURE LAGUNTZA

BEHAR DU

can

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK zure laguntza behar du eskuartean dituen egitasmoak (telebista, aldizkaria, egunkari digitala) aitzinera ateratzeko. Izan ere, ekonomia da.

Zure aukeraketa bide hauek erabiliz egin dezakezu:

- Clavenet, Nafarroako Kutxako banku elektronikoa
- Kutxazain automatiko berrietan
- Bulegoetan, CANeko kudeatzaile pertsonal batek lagundurik
- Bestela, bete ezazu argitara emanen diren lerro, jarduera eta proiektu guztiei buruzko argibide materialetako galdetegiak, zehaztu zure erabakia eta bidali Nafarroako Kutxara.

AURREKONTU GUZTIETARAKO

Zure bainu-gela, sukalde, terraza edo zure etxe oso-osorako, **Alkain** prest daukazu beti Hondarribian zure gustu, ideia eta aurrekontuetara egokitzeko.



Multzo osoa **315€***
(Pareta-argia + ispilua + konketa + altzaria)



Multzo osoa **360€***
(Altzaria, 70x35 + konketa + ispilua, 50x80 + pareta-argia)

Euskaraz
badakigu

*Prezio hauek 2008-12-31 arte daude indarrean

 **alkain**
zeramikak eta bainuak
C/ Amutalde, 21 • 20280 Hondarribia • Tel.: 943 64 52 54
www.alkain.com

Lur

urtarrilak 3 larunbata

LURDJOTAK

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

urtarrilak 5 astelehena

ERREGEEN GAUA

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

urtarrilak 10 larunbata

LURDJOTAK

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

urtarrilak 17 larunbata

IMPEKABLES

01:00 9€ DISKO BERRIAREN AURKEZPENA
JAISTEKO MUXUTRUK www.impekables.com

urtarrilak 24 larunbata

LURDJOTAK

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

urtarrilak 31 larunbata

KAMISETA BUSTIAK +ZEZEN MEKANIKOA

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM